

HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondokoa - Sakontze egitasmoa

bipuntuzero

Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

Egilea: Mikel Aparicio Olabbarri

Tutorea: Jon Aizpurua Espin

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| Aurkibidea..... | 2 |
| Zer da Web 2.0?..... | 4 |
| Webaren eklosioa..... | 4 |
| Internet ulertzeko beste era bat: Web 2.0 | 5 |
| Euskararen egoera aldaketaren aurrean | 8 |
| Gizarte sareak: hurbilketa teoriko bat..... | 11 |
| Sareen tipologiak..... | 12 |
| Mundu txiki batean bizi gara: Lotura arinen indarra | 14 |
| Hizkuntza aukeraketa eta ingurunearen garrantzia..... | 17 |
| Testuinguru teknologikoa | 18 |
| Testuinguru teknologikoaren garrantzia..... | 18 |
| Gaur egungo egoera..... | 21 |
| Nola eragin testuinguru teknologikoa euskaratzeko? | 24 |
| Blogak eta euskal blogosfera | 26 |
| Zer da blogosfera?..... | 26 |
| Blogosfera euskaldunaren egoera | 26 |
| Microblogintza tresnak: Twitter | 33 |
| Sarrera..... | 33 |
| Euskararen egoera Twitterren | 34 |
| Gizarte sareak: Facebook eta Tuenti | 41 |
| Sarrera..... | 41 |
| Facebook eta Tuenti: euskararen egoera egun | 42 |

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

| | |
|---|----|
| Ondorioak..... | 48 |
| Edukiak eta komunikazioa | 52 |
| Edukien garrantzia..... | 52 |
| Komunikazio estrategia egokiak hautatu..... | 54 |
| Ondorio nagusiak..... | 55 |
| Bibliografia | 58 |

Zer da Web 2.0?

Webaren eklosioa

Nahiz eta Internet (hau da, distantzia handitan informazioa trukatzeko eta elkarren artean datuak prozesatzeko aukera ematen zuen hainbat sistema informatikoren arteko sarea) 60ko hamarkadaren bukaeran sortua izan (helburu militar eta, ondoren, unibertsitarioak betetzeko asmoarekin), haren zerbitzu ezagunena eta garrantzitsuena, "World Wide Web" (WWW, edo, laburrago esanda, Web) delakoa 90ko hamarkadaren hasieran hasi zen zabaltzen, CERNeke bi zientzilarik garatuta: Tim Berners Leek eta Robert Cailliauk. Sistema berri horren oinarri nagusia hauxe zen: hiperesteken bidez elkarri lotutako dokumentuz (web orriz) osatutako sare handi bat non informazioa, web nabigatzaile baten bidez, guztion eskura zegoen, inolako ezagutza informatikorik izan gabe.

Urte gutxitan, webak arrakasta eta hedatze izugarria ezagutu zuen. Ordenagailuak eta internekeo konexioak hedatzen ziren heinean, weba informazio iturri izugarria bilakatu zen erabiltzaile askorentzat. Horrez gain, webguneek nolabaiteko jarraipena eman zioten Apple iOS eta Microsoft Windows sistema eragileek zabalduetako interfase grafikoaren logikari. Webak eskainitako zerbitzuari gehituta, internet kanalaren bidezko beste zerbitzu askok (posta elektronikoa, "chat" zerbitzuak, fitxategiak elkarbanatzeko kanalak, eta abar) gero eta erabiltzaile gehiago lortu zuten. Horrela, interneten eta weben "egotea" lehenetasuna bilakatuta hainbat eta hainbat elkarte, enpresa edo administrazioentzat, Internet eta Web denon ahotan zeuden hitzak bilakatu ziren, modernitasunarekin eta dinamikotasunarekin lotuta. Informazio gizartearen hastapena izan zen, eklosioa, gaur egun "Web 1.0" deitzen dioguna.

Web 1.0 horren ezaugarri nagusienetariko bat aldebakartasuna izan zen. Ezagutza teknikorik gabeko erabiltzaile batentzat ia ezinezkoa zenez webguneak sortzea eta argitaratzea, informazio sortzaile nagusiak (ia bakarrak, kasu gehienetan) webguneak sortzen eta kudeatzen zituzten enpresa, elkarte edo administrazioak ziren. Erabiltzailearen aukerak nabigazio hutsara mugatzen ziren, hots, hiperesteken bidez (edo bilatzaile batek emandako emaitzen bidez) webgune batetik bestera ibiltzea informazioa biltzeko, ekarpenak egiteko ia aukerarik gabe eta interakzio maila zeharo mugatu batekin (gehienez, webgunearen jabearekin posta elektronikoz harremanetan jartzeko aukera, edota inkestak eta galdetegiak betetzea, esate baterako). Salbuespen bakarrak, mezuak denbora errealean elkartrukatzeko zerbitzuak ("chat" izenez ezagunak), posta-zerrendak eta interneteko foroak, non erabiltzaileek kezka edota gai

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

jakin bati buruzko galderak, erantzunak, iradokizunak edo estekak partekatzen zituzten, interneteko lehenengo komunitateak, ez gaur ezagutzen dugun moduan, baina bai elkarrekintza eta komunitateak sortu zituzten lehenak. Hauetaz aparte, erabiltzailea, beraz, irakurle edo informazio-kontsumitzaile hutsa izatera mugatuta zegoen.

Ukaezina da garai horietako webaren arrakasta. Nahiz eta orduko baliabide teknikoak urriak izan (erabiltzaileen konexioen aldetik, batez ere), webak informazioa lortzeko eta hedatzeko kanal ezinhobea bihurtu zen. Horrez gain, komertzio elektronikoak bere lehenengo urratsak ematen zituen, internet negoziarako ere plaza aproposa zela frogatuz. Webguneak ugaltzen ziren etengabe, gero eta erabiltzaile gehiago hurbiltzen ziren internetera, eta gero eta inbertsore gehiago jarri zituzten euren itxaropenak (eta diruak) euren negozio-eredua guztiz argi ez zeukaten hainbat ".com" enpresatan. Neurrik gabeko hazkunde ekonomiko esponentzial horrek (eta berari lotutako espekulazio mugimenduek) ekarri zuen XX. mende hasierako ".com burbuilaren eztanda", mundu osoko finantza sektoreak astindu zuena. Diruak alde egin zuen bat-batean interneteko enpresetatik, negozio-ereduak birplantzera behartuz. Aldagai ekonomiko hauek, internetaren beraren bilakera eta tresna eta teknologia berrien garapena webaren beste irudikapen batera egin zioten leku: Web 2.0.

Internet ulertzeko beste era bat: Web 2.0

Web 2.0 terminoa 2004tik aurrera O'Reilly Media argitaletxeri esker ezaguna egin bazen ere, Darcy DiNucci kontsultorea izan zen lehen aldiz erabili zuena bere "Fragmented Future" artikuluan.


"The Web we know now, which loads into a browser window in essentially static screenfuls, is only an embryo of the Web to come. The first glimmerings of Web 2.0 are beginning to appear, and we are just starting to see how that embryo might develop. The Web will be understood not as screenfuls of text and graphics but as a transport mechanism, the ether through which interactivity happens." [DiNUCCI, D. \(1999\). FRAGMENTED FUTURE". DARCYD.COM HTTP://DARCYD.COM/FRAGMENTED_FUTURE.PDF](http://darcy.com/fragmented_future.pdf)

Web 2.0 denominazioarekin World Wide Web eta internet bera ulertzeko beste modu bat planteatzen da. Nahiz eta terminoak webaren bertsio "berri" bat eratu zuela iradoki, ez da webaren ezaugarri teknikoan edo protokoloen gaurkotzeratze erradikala baten isla; aitzitik, pixkanaka garatu eta sortu ziren aldaketa kate bat deskribatzen du, bai webaren kontzeptuan zein webguneen ezaugarri askotan.

Web 1.0 orrialde estatikoetan eta aldebakarreko komunikazio transmisioan oinarrituta zegoen; Web 2.0k, aldiz, webgune eto tresna dinamikoak ditu eredu gisa, maiz

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

eguneratzen direnak (denbora errealean, asko) eta, garrantzitsuena, erabiltzaileak ez du soilik informazio kontsumitzaile rola jokatu; informazio ekoizle, argitaratzaile eta hedatzaile bihurtzen da, ordea. Horrekin batera, sare birtualak eta komunitateak sortzeko aukera ugari eskaintzen dira, lan kolaboratiboan oinarrituta. Informazio jarria aldebakarrekoa izatetik (webmaster->erabiltzaile) aldebikoa edo aldeaniztuna izatera pasatzen da (erabiltzaile <-> erabiltzaile). Esate baterako, "Encyclopedia Britannica"-ren webgunea 1.0 zen: Enziklopedia kudeatzen zuen enpresak argitaratzen zuen informazioa bere webgunean, eta erabiltzaileek informazio hori kontsultatzen zuten, beste aukerarik gabe. "Wikipedia" webgunea, aldiz, Web 2.0ren adibide argia dugu: erabiltzaileek beraiek sortzen eta argitaratzen dute informazioa, beraiek komentatzen edo editatzen dute, eta beraiek sortzen dituzte jarraipen batzordeak, eztabaida taldeak, etab. Gauza bera gertatzen da, adibidez, Twitterrekin: Twitterrek ez du informaziorik ematen (bere profilaz aparte), bertan dauden erabiltzaileek sortzen dute, ordea, eta beraiek erabakitzen dute noren informazioa jarraitu, noren aipua egin, zein azpisaretan eragin.



Web 1.0 eta 2.0ren arteko desberdintasunak

Laburbilduz, Web 2.0 ezaugarriak ondoko hauek lirateke:

- Erabiltzailea informazio ekoizle eta hedatzaile gisa.
- Edukien dinamikotasuna, etengabeko eguneraketak, iruzkinak, aipua...

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

- Alde soziala: komunitateak, sare sozialak, blogosfera, ekimen kolaboratiboak. "Parte-hartzearen arkitektura"-n oinarritutako webguneak (Facebook, Flickr, Twitter) eta "talde adimena" sustatzeko aproposak.
- Edukien berrerabilgarritasuna estandar irekiei esker: API libreak edo erabiltzeko baimenekin, RSS jarioak, formatu estandarrak informazioa trukatzeko, datu askeak, elkarbanatzeko lizentzia askeak.
- Web nabigatzailean oinarritutako aplikazioak eta datuak, zuzenean webean bertan erabiltzeko garatuak (Google Docs, Google Maps, Yahoo Mashups)
- Interfaseen diseinuaren aldaketa, usagarritasunean oinarritutak eta orrialde (edo dokumentu) estatikoak izatetik aplikazio dinamikoak izatera hainbat teknika berriri esker (AJAX, Flex, etab.)



Web 2.0ren ideia eta elementu nagusiak (CC BY-SA Markus Angermeier, Xabier Eskisabelek euskaratuta)

Ez dugu pentsatu behar, ordea, gaur egun Internet osoa Web 2.0 denik. Alde batetik, zentzu zorrotz batean "Web" ez diren zerbitzuek bere horretan jarraitzen dute (posta elektronikoa, banatze-zerrendak, bideokonferentzia zerbitzuak, fitxategiak elkarbanatzeko kanalak, eta abar). Beste aldetik, webgune ugari (gehienak) 1.0 dira oraindik, edo 2.0 kulturaren elementu soil batzuk aplikatu dituzte (esate baterako, ia hedabide guztiek ezarri dituzte euren webguneetan iruzkinak egiteko sistemak, baina

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

informazio jarioak aldebakarrekoa izaten jarraitzen du, hots, hedabidea>erabiltzailea). Web 2.0 kontzeptu abstraktoa da, definitzeko zaila, baina internet osora hedatu dena. Izan ere, internet kanalaren garapen bezala ulertu behar dugu, sortze eta iraungitze data zehatzik gabekoa. Tim Berners-Leek aipatu zuen bezala, *"Nobody really knows what it means...If Web 2.0 for you is blogs and wikis, then that is people to people. But that was what the Web was supposed to be all along."*

[LANNIGHAM, SCOTT \(2006\). DEVELOPERNETWORKS INTERVIEW WITH TIM BERNERS-LEE. \(HTTP://WWW.IBM.COM/DEVELOPERWORKS/PODCAST/DWI/CM-INT082206TXT.HTML\)](http://www.ibm.com/developerworks/podcast/dwi/cm-int082206txt.html)

Euskararen egoera aldaketaren aurrean

Zein da euskararen egoera interneten eta gaur egun? Zein dira gaur egungo erronkak sarean (erabiltzaileek sustatutako eta partekatzean oinarritutako sarea berri horretan ere) eta landu beharreko arloak euskararen normalizazio prozesuan aurrera egiteko?

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar dugu Web osoa ez dela 2.0 bihurtu. Zerbitzu asko eta asko jarraitzen dute aldebakarrekoak izaten, edo Web 2.0ko elementu batzuk moldatu eta gehitu dituztela haien betiko zerbitzuei (horren adibide garbi bat, egunkarien webguneak eta albiste batzuk iruzkintzeko aukera). Gaur egungo egoera orokorrari buruz hasierako hurbilketa egiteko, aipatuko dugu 2012an Eustatek argitaratutako EAEko 15 urte eta gehiagoko Internet erabiltzaileen artean egindako inkesta.(http://eu.eustat.es/estadisticas/tema_133/opt_0/ti_Internet_erabiltzen_duten_biztanleak/temas.html). Erabilitako hizkuntzan eta webgune bisitatuen zerrenda aztertuko dugu:

| | Guztira (milaka) | Nabigazio hizkuntza | | | | |
|------------------|---------------------|------------------------|-------------|-------------|------------|------------------------------|
| | | Euskara | Gaztelania | Ingelesa | Frantsesa | Beste hizkuntzaren bat |
| Euskal AE | 1.089,1 | 20,9 | 99,2 | 19,6 | 2,1 | 1,9 |
| Araba / Álava | 163,9 | 12,1 | 100,0 | 17,7 | 2,0 | 2,0 |
| Bizkaia | 562,6 | 22,1 | 98,6 | 23,8 | 2,0 | 2,2 |
| Gipuzkoa | 362,7 | 23,0 | 99,6 | 14,1 | 2,3 | 1,4 |

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

Euskal AEko 15 urte eta gehiagoko Internet erabiltzaile biztanleak, erabilitako hizkuntza eta lurralde historikoaren arabera (%). 2012. Iturria: EUSTAT, Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI).

Ez dira harritzeko datuak. EAEko biztanle guztiek (%99,2) erabiltzen dute gaztelania nabigatzeko. Gaztelaniaz gain, euskara (%20,9) eta ingelesa (%19,6) dira hizkuntza erabilienak (aipatzekoa da Bizkaia eta Gipuzkoaren emaitzak, ia berdinak nahiz eta euskaldunen ehuneko askoz altuagoa izan Gipuzkoan). Webgune bisitatuenei buruz hauexek dira emaitzak:

| 2012ko rankinga | | 2012ko aipamenkop. |
|-----------------|---------------------|--------------------|
| | Guztira | 1.772,4 |
| 1 | ELCORREODIGITAL.COM | 166,5 |
| 2 | FACEBOOK.COM | 155,6 |
| 3 | HOTMAIL.COM | 152,7 |
| 4 | DIARIOVASCO.COM | 115,5 |
| 5 | TUENTI.COM | 84,7 |
| 6 | MARCA.ES | 80,0 |
| 7 | YOUTUBE.COM | 72,6 |
| 8 | GMAIL.COM | 65,2 |
| 9 | KUTXA.NET | 52,4 |
| 10 | ELPAIS.COM | 49,2 |
| 11 | LANBIDE.NET | 43,5 |
| 12 | GOOGLE.COM | 42,5 |
| 13 | GARA.NET | 36,5 |
| 14 | WIKIPEDIA.ORG | 34,7 |
| 15 | EUSKADI.NET | 34,3 |
| 16 | INFOJOB.COM | 33,0 |
| 17 | YAHOO.COM | 24,9 |
| 18 | DEIA.ES | 24,3 |
| 19 | ELMUNDO.ES | 22,1 |
| 20 | CAJALABORAL.ES | 21,0 |
| 21 | BERRIA.INFO | 20,4 |
| 22 | BBK.ES | 16,9 |
| 23 | EHU.ES | 14,7 |
| 24 | ELTIEMPO.ES | 12,4 |
| 25 | GIPUZKOA.NET | 11,8 |

Euskal AEko weben rankinga, 15 urte eta gehiagoko Interneteko biztanleria erabiltzailearen aipamenean arabera (milakotan). 2011-2012. Iturria: EUSTAT, Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI).

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

Lehenengo 25 webguneen artean bakarria da euskara hutsean (berria.info, 21. postuan). Datu hauei erreparatuz hauxe ondoriozta dezakegu:

- 25 webgune bisitatuenen artean, 1 da euskara hutsean eta 8 gaztelania hutsean. (9 hauean artean hedabideak dira gehiengoa). Beste guztiek informazio edo zerbitzu elebidunak eskaintzen dituzte. Hala eta guztiz ere, eta hizkuntzaren erabilera buruzko datuak kontuan hartuta, suposatzea da webgune elebidun horien artean nabegazioa gaztelaniaz izango dela gehienbat.
- 25 webgune bistatueneak mota hauetan sailkatzen dira: 8 hedabideen webgune, 4 gizarte sare edo web 2.0 zerbitzu (Facebook, Youtube, Tuenti eta Wikipedia), 4 posta/bilatzaile/atari horizontal (Google, Hotmail, Yahoo, Gmail), eta 3 kutxak (Kutxa, Bbk eta Caja Laboral). Web 2.0 zerbitzuek erabilera handia daukate, baina Web 1.0ko webgune eta zerbitzuak dira nagusi.

Lehenengo Web 1.0ren jario aldebakarrekoa "webguneak" aztertzeraz mugatzen gintuen, eta webgune horietako euskaraz emandako informazioa eta bertan euskaldunon nabigazio ohiturak ziren aztertu beharreko elementu nagusiak. Informazio sortzaileak eta hedatzaileak webguneen jabeak zirenez, garbi zegoen aldarrikatu beharko pausuak: webguneetan ematen zen informazio guztia euskaraz egotea (lehenetsita bazegoen, hobe) eta nabigatzaileen aldetik euskarazko informazioa kontsumitzeko motibazioa. Erabiltzaileak ordenagailuaren aurrean nabigatzen zuen, jarduera pribatua zen, pertsona bakarrekoa. Kontuan hartzeko aldagaiak ziren, ondorioz, bere euskara gaitasuna, webguneen euskarazko edukiak, eta motibazioa euskaraz nabigatzeko.

Web 2.0 kontzeptuak jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa suposatu du euskararen egoera interneten aztertzeko orduan. Ez dugu orain aldaketa horiek sakonegi aztertuko, baina bi multzotan sailka ditzakegu:

- **Web 2.0ren aldaketa estrukturalak:** Informazioaren transmisioa aldebakarrekoa (enpresa/erakundea -> erabiltzailea) izateari utzio dionez, eta komunitateak eta gizarte sareak ugaltzeko direnez, webaren erabilera jardun pertsonala izatetik jardun soziala izatera pasatu da, eta gizartean euskarak duen egoera eta aldagaiak webaren eragin zuzenagoa dute.
- **Euskal hiztun-komunitatean aldaketa estrukturalak:** Euskarazko hezkuntza-ereduen arrakastari esker euskaldunen kopurua igo da azken urteotan (Hego

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

Euskal Herrian, behintzat). Baina horrek beste ondorioak ekarri ditu, eta nabarmenena hauxe da: euskaldunen tipologiaren aldaketa. Gaur egungo euskaldunen gehiengoa, gune urbanoetan bizi da, ingurune erdaldunetan, eta euskara dute bigarren hizkuntza (hots, erraztasun handiagoa daukate gaztelaniaz jardutean euskaraz berba egitean baino) , eskolan ikasitakoa eta eskolan erabiltzen duena, baina hortik kanpo euskaraz jarduteko aukera gutxi dituztenak.

Horrez gain, aipatu beharra dago internet sarearen errealitatea eta hedapena, hizkuntza gutxituentzat aukera baliotsuak ekar ditzakeela, baina David Crystal irakasleak gogoratzen duen bezala, arriskuak, hizkuntza "handien" (ingelesarena, batez ere) eraginagatik:

" Bestalde, onartu beharra dago hizkuntzek ziberespazioan txokotxo bat aurkitzea ere ez dela batere erraza. Interneten hedapenak nolabaiteko "masa kritikoa" lortu beharra dauka edozein herrialdetan, hizkuntza batek bizitza zibernetiko bizia garatu ahal izan dezan. Alferrik da gure herriko hizkuntzan idatzitako pare bat web gune besterik ez izatea. Gure hizkuntza erabili edo haren berri jaso nahi dutenak berehala aspertuko lirake. Web guneak sortu eta sortu egin behar dira, halako batean jende guztia gune horiek erabiltzen hasi eta denon artean gune berriak sortzen hasten garen arte. Une magikoa izaten da hori eta oraingoz ehunka gutxi hizkuntzak besterik ez dute lortu. Interneteko hizkera erabiliz, "eduki" on ugari behar dira sarean dauden hizkuntza txikietan. Dena den, hori lortu arte eduki asko dauzkaten hizkuntzak -ingelese bereziki erabiltzen jarraituko du jendeak. " ([DAVID CRYSTAL, "HIZKUNTZA, HIZKUNTZAK ETA INTERNET" HTTP://WWW.EUSKARA.EUSKADI.NET/R59-BPEDUKI/EU/CONTENIDOS/INFORMACION/ARTIK25_1_CRYSTAL_08_06/EU_CRYSTAL/ADJUNTOS/DAVID-CRYSTAL.PDF](http://www.euskara.euskadi.net/r59-bpeduki/eu/contenidos/informacion/artik25_1_crystal_08_06/eu_crystal/adjuntos/david-crystal.pdf))

Gizarte sareak: hurbilketa teoriko bat

Gizarte sareak ez ziren interneteko iraultzarekin asmatu. Aspalditik datoz, eta gizakia (batez ere, gizartea) bezain zaharrak dira. Modu orokorrean identifikatzeko, gizarte sareak pertsonen eta haien arteko erlazioek osatutako sistemak dira, eta euren

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak


ikerketa zeharo garrantzitsua da gure ingurune soziala eta, nola ez, Web 2.0ko gizarte sare digital berriak ulertzeko.

Sareen tipologiak


Gizarte sareak aztertzea euren egitura aztertzean datza, gehienbat. Sareak "grafoak" bezala irudikatu daitezke, hau da, loturen bidez konektatuta dagoen nodo multzo bat (gizarte sareen kasuan, nodo horiek norbanakoak izango lirateke, eta loturak haien arteko harremanak). Horregatik, sareen azterketa topologikoa izaten da: sare horren barneko egituren azalpena eta egitura horrek zer nolako ezaugarriak emango dizkion sareari. Izan ere, sare baten egitura sare horren barruan egon daitezken aukerak mugatuko ditu; ez digu azalduko zer gertatuko den edo zein portaera emango den, baina bai zer gerta daitekeen erakutsiko digu eta, horrekin batera, sare horren mugak. Gizarte sare baten egitura, beraz, ez da, inondik inora, neutrala, Albert-Lászlo Barabási-k bere "Linked" liburuan azaldu zuenez:

"Los grafos o redes tienen propiedades, ocultas bajo sus estructura, que limitan o multiplican nuestra capacidad para hacer cosas con ellas" [BARABÁSI, A. \(2002\). LINKED, THE NEW SCIENCE OF NETWORKS. PERSEUS BOOKS GROUP](#)


Sareak hiru topologia motan handietan bereiz ditzakegu: Sare Zentralizatuak, Sare Deszentralizatuak eta Sare Banatuak:



Sare Zentralizatuak



Sare Deszentralizatuak



Sare banatuak

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

Sare zentralizatuak nodo bakar batean egiten dute topo. Nodo horrek dauka erabaki ahalmen eta potere ia guztia, bere zentralitatek informazio guztia pasa behar baita. Sareen modelo sinpleena dugu, sistema estatiko eta egitura guztiz hierarkizatuta dutenak. Aldi berean, sare mota ahulena da, sare guztiaren egonkortasuna nodo zentral horren egonkortasunean baitago. Sare deszentralizatuak aurrekoaren garapena dira, nolabaiteko "sare askoren sareak": nodoak azpi-talde (kluster) batzuetan metatzen dira, nodo zentral baten inguruan, konexioak horren inguruan eratzen direlarik, eta kluster bakoitzeko nodo zentralak beste klusterren nodo zentralekin konektatzen da. Azkenik, sare banatuetan nodoak elkarren artean konektatzen dira hainbat lotura desberdinen bitartez, inolako egitura hierarkizaturik gabe. Azken hau da internet sarearen atzean dagoen filosofia, non nodoak (webguneak) beste nodoekin konektatzen diren loturen (hiperesteken) bidez, zentraltasunik (edo azpi-zentraltasunik) duten inolako nodorik gabe. Nodo bat desagertzen denean, konexioa beste edozein bidetik bidera daiteke, sarearen egonkortasuna arriskuan jarri gabe.

Nolanahi ere, garrantzitsua da gizarte sare guztiak (mundu fisikoarenak zein digitalak) guztiz dinamikoak direla. Gizarte hauek aldakorak dira, eta haien barnean dauden nodoek (norbanakoek) aldatzen dituztela konexioak haien interesen arabera.

Zein topologia jarraitzen dute Web 2.0ko gizarte sareak? Alde teknikitik zein beraien ezaugarrietatik, bi multzotan sailka ditzakegu:

- **Sare zentralizatuak:** Gizarte sare "orokorrak" gaur egun merkatuan nagusi diren eredu zentralizatuan oinarritzen direnak (Facebook, Tuenti, Twitter, Google +, eta abar).
- **Sare banatuak/deszentralizatuak:** Blogosfera eta Web 1.0ren zerbitzu batzuk: foroak, posta-zerrendak, eta abar. Sare motak hauek


Bi topologia mota horiek garrantzitsuak dira euskararentzat. Sare zentralizatuak egokiak dira komunikatzeko eta informazioa helarazteko, baina ez hizkuntza gutxitu batek behar duen komunitate elebakarrak (trinkoak) sortzeko, edukiak sortzeko gaitasun handiena erakusten dutenak. Horretarako, egokiak dira bigarrenak bere izaera deszentralizatuagatik. Lehenengoak ezagutzen eta atxikimenduan geratuko dira, David de Ugartek proposatuko "Konpromisoaren piramidean" (<http://bitacora.lasindias.com/la-piramide-del-compromiso/>), bigarrenak, ordea, parte-hartzera eta elkarrekintzara salto egiteko aukera ematen dute.

Mundu txiki batean bizi gara: Lotura arinen indarra

Atal honekin hasteko aipatu behar dugu 1973ko Stanley Milgram-en "Small World" esperimentua: Gutun batzuk banatu zituen pertsona talde bati, eta pertsona hauen helburua urruneko ezezaguna zen beste pertsona bati helaraztea zen. Ezin zuten pertsona horri zuzenean bidali, bakarrik ezaguna zen beste pertsona bati, honek beste ezagun bati, eta horrela jarraitu helburura (hasierako hartzaile ezezagunera) heldu arte. Esperimentua bukatutakoan ondorioztatu zuen hasierako igorle eta hartzaile ezezagunen artean gehienez sei gradutako jauzia zegoela (Six Degrees of Separation), hau da, sare txiki bat ("Small World") osatzen zutela, non nahiz eta harreman zuzena ez izan, oso pausu gutxitan posiblea zela nodo batetik bestera informazioa helaraztea, nodoen arteko separazioa (hasiera batean) izugarria iruditu arren. Laburbilduz, edozein pertsona (nodoa) beste pertsona batengana hel daitekela soilik 6 pausu (edo bien arteko nodoak) jarraituz. Zelan azaldu fenomeno bitxi hori? Lotura arinak hor daudelako, eta informazioa zabaltzeko eta garraiatzeko eragin garrantzitsua dutelako.

Normalean gure bizitzan, gure sare sozialean, "lehen mailako" kontaktuak izaten ditugu, eguneroko kontaktu hurbilak (familia, lagun hurbilak, interes berak dutenak, eta abar), "lotura sendoak" deituko ditugunak. Normalena izaten da lotura sendoak dituzten pertsonen artean azpi-sare moduko bat sortzea, sarearen "kluster" bat. Bestetik, "lotura arinak" ditugu, hau da, harreman zuzen edo trinkorik ez dugun pertsona horiek. Nodo horiek dira kluster desberdinak konektatzen dituztenak, eta klusterren (hau da, lotura sendoez osatutako azpi-sareen) artean informazioa garraiatzeko bidea dira. Izan ere, David de Ugarteren ustean *"los limites de la propagacion vienen determinados por los vinculos debiles"* ([DAVID DE UGARTE, "BREVE HISTORIA DEL ANÁLISIS DE REDES SOCIALES"](http://DAVID.LASINDIAS.COM/GOMI/HISTORIA_DEL_ANALISIS_DE_REDES_SOCIALES.PDF)). Lotura arin hauek bihurtzen dute gizarte sareak "mundu txikiak".

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak



Lotura sendoak eta lotura arinen errepresentazioa ([EYTAN BAKSHY, "RETHINKING INFORMATION DIVERSITY IN NETWORKS"](http://www.facebook.com/notes/facebook-data-team/rethinking-information-diversity-in-networks/10150503499618859), [HTTP://WWW.FACEBOOK.COM/NOTES/FACEBOOK-DATA-TEAM/RETHINKING-INFORMATION-DIVERSITY-IN-NETWORKS/10150503499618859](http://www.facebook.com/notes/facebook-data-team/rethinking-information-diversity-in-networks/10150503499618859))

Hasieran pentsa genezake lotura arin horiek ez dutela garrantzi handirik lotura sendoekin konparatuta, inoiz ez da gauza bera lagun hurbil batekin dugun harremana eta "ezagun" (instituko garaiko lagun hori, Facebooken gure lagun artean duguna) edo interneteko "erreferente" batekin (Twitterren jarraitzen dugun kazetari edo pentsalari famatu hurarekin) duguna. Hori egia izan liteke "eragina"zuzena izateko, hori askoz errezagoa baita lotura sendoen artean. Baina informazioa (mezuak edo kanpainak) helarazteko eta kontzientzia pizteko lotura arin horiek izugarri baliotsuak dira Mark Granovetter soziologoak 1973an egindako ikerketan batean (The Strength of Weak Ties) azaldu zuenez. Bertan, Bostoneko bi komunitateren mobilizazioak aztertuz, ondorioztatu zuen komunitate baten koordinazioan eragina handiagoa zutela lotura arinek, lotura hurbilek edo sendoek baino.


"The personal experience of individuals is closely bound up with larger-scale aspects of social structure, well beyond the purview or control of particular individuals. Linkage of micro and macro levels is thus no luxury but of central importance to the development of sociological theory. Such linkage generates paradoxes: weak ties, often denounced as generative of alienation are here seen as indispensable to individuals' opportunities and to their integration into communities"

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

MARK GRANOVETTER, THE STRENGTH OF WEAK TIES
([HTTP://WWW.STANFORD.EDU/DEPT/SOC/PEOPLE/MGRANOVETTER/DOCUMENTS/GRANSTRENGTHWEAK TIES.PDF](http://www.stanford.edu/dept/soc/people/mgranovetter/documents/granstrengthweakties.pdf))

Zer erlazioa dute interneteko gizarte sareek eta lotura arin horiek? Oso estua, batez ere gizarte sare “orokorretan” (Facebook, Tuenti, Google +) eta mikroblogintza plataformetan (Twitter). Tresna hauek balio dute gure kontaktu hurbilekin konexioa areagotzeko, baina baita ere lotura arin horiek sortzeko eta hobeto kudeatzeko. Izan ere, hori izan daiteke gizarte sare horien indargunerik handiena: lotura arinen ugaltzea eta indartzea.

“We also investigate how Facebook amplifies information distribution. That is, if a friend shares something on Facebook, how many times more likely are you to share that information as a result of seeing it in the News Feed? (...) Therefore, seeing content from a weak tie leads to a nearly tenfold increase in the likelihood that a person will share a link. In contrast, seeing information shared by a strong tie in News Feed makes people just six times as likely to share. In short, weak ties have the greatest potential to expose their friends to information that they would not have otherwise discovered.



Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

(...) People are more likely to share information from their strong ties, but because of their abundance, weak ties are primarily responsible for the majority of information spread on Facebook. The figure above illustrates how a majority of influence (orange) can be generated by weak ties, even if strong ties are individually more influential.” [\(EYTAN BAKSHY, “RETHINKING INFORMATION DIVERSITY IN NETWORKS”, HTTP://WWW.FACEBOOK.COM/NOTES/FACEBOOK-DATA-TEAM/RETHINKING-INFORMATION-DIVERSITY-IN-NETWORKS/10150503499618859\)](http://www.facebook.com/notes/facebook-data-team/RETHINKING-INFORMATION-DIVERSITY-IN-NETWORKS/10150503499618859)

Hizkuntza-komunitateari dagokionez, lotura arinak erabiltzea garrantzitsua da oso, batez ere euskarazko edukien eta komunitateen lana hedatzeko. Nahiz eta sare hauek, beren zentralizazio-joeragatik erronka ugari ezarri komunitate euskaldunak indartzeko, beraien ezaugarriak (komunikazio-kanal gisa, batez ere) aprobeztatu behar ditugu lotura arin horiei komunitate euskaldunen mezuak eta lanak zabaltzeko eta komunikazio ekintza eraginkorrak garatzeko. Ikusgarritasuna eman behar diogu euskarari eta euskal komunitateari, horretarako beste hizkuntzaren bat erabili behar bada ere. Euskaraz sortzen diren edukiak eta zerbitzuak ezagutarazi, erakustea (baita komunitate erdaldunari) euskara arlo teknologikora moldatzen dela, horretarako balio duela, modernitasunan eta eraginkortasun murgil daitekela, eta horrekin guztiarekin euskara erakargarria bihurtzea.

Hizkuntza aukeraketa eta ingurunearen garrantzia

Atal hau jorrazteko, Iñaki Martínez de Luna, Nekane Jausoro, Kontxesi Berrio-Otxoa eta Ibon Idirenek argitaratuko "Gizarte sareak eta hizkuntzaren erabilera: euskarari eta gaztelaniari egokitutako hurbilketa" artikulua erabiliko dugu. Bertan, hizkuntzari buruzko baldintza ugari gizarte sareen ikuspuntutik aztertzen dira, garbi utziz hizkuntza baten erabilera gizarte sare baten baitan garatzen dela, eta interakzio sozialan sortu eta hedatzen dela: *"Hizkuntza baten erabileran faktore askok eragiten dute, eta, era berean, argi dago hizkuntzaren erabilera gizarte dimentsioko zerbait dela ere eta ez bakarrik banakakoarena"*. Teoria hutsean, interakzio horiek orekatuak edo desorekatuak izan daitezke (hizkuntza bakarra edo biak erabiliz) eta, horrez gain, hautazkoak edo derrigorrezkoak (sare bateko nodo guztiak elebidunak direnean hauta daiteke zein hizkuntzan hitz egin, baina nodoren bat elebakarra bada ezin da aukerarik egin). Gizarte diglosiko batean derrigorrezko harreman orekatuak (gaztelaniaz edo frantsesez, euskal herriko kasuan) izango dira nagusi, sareak ez baitie emango elebidunei hautatutako hizkuntzan jarduteko aukerarik. Baina aukerazko harremanak (orekatuak zein desorekatuak) egoteko aukerak daudenean aukeraketa hori sozialki baldintzatuta egongo da. Hots, *"gutxiagotutako hizkuntza hitz egiteko behar hainbateko motibazioaz gain, guztiz beharrezkoa da inguruneak ere aldeko*

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

baldintzak eskain ditzan, eta halakorik ezean ez dago hizkuntza hautateka libre edora iraunkorrik". Horrekin lotuta, egileek (Sanchez Carrion "Txepetx"-en lana gogora ekarriz), euskaldun sareak eratzeko beharra aldarrikatzen dute, sare horietan bakarrik izango baita posible hizkuntza komunitatea trinkotzea euskararen erabilera bermatu ahal izateko. Beste modu batean azalduta, gizarte sare euskaldun trinkoak sortu hautazko harreman orekatuak (euskaraz) garatu ahal izateko.

Testuinguru teknologikoa

Testuinguru teknologikoaren garrantzia

Interneten eta interneteko gizarte sareetan garrantzi handiko elementua dugu testuinguru teknologikoa. Nabigazio ohiturak, hizkuntza jarrerak, objektu sozialak, lotura motak eta abar azter ditzakegu, baina zein testuinguru teknologikoan (sistema eragilean, zein nabigatzailean, batez ere) ematen dira? Zein hizkuntzan dago testuinguru hori? Gorka Julioren esanetan:

"Baina Interneti dagokionez eta testuinguruari buruz ari garenean, aurkitzen dugun lehen testuingurua nabigatzailea bera da. Oso garrantzitsua da nabigatzailea euskaraz jartzea, baita hizkuntza lehenetsien artean euskara izatea ere. Lehenengoari esker euskarazko testuingurua psikologikoki aurreikustea lortzen dugu. Interneten euskaraz ere nabigatu dezakegula pentsatzen laguntzeko balio du. Bigarrenak aldiz, jada euskaraz dauden webguneak automatikoki euskaraz agerrarazten lagunduko digu. Era berean, euskaraz nabigatzen duten pertsonak daudela argi utziko dugu beste zerbitzarien estatistiketan." (GORKA JULIO, 2010 ["EUSKARA 2.0: EUSKARA INTERNETEKO SARE SOZIALEN TESUINGURUAN". HTTP://TEKETEN.COM/WP-CONTENT/UPLOADS/2010/08/INTERNETEKO_SARE_SOZIALAK_SARE_SOZIALEN_ANALISI_DINAMIKOTIK_BEGIRATUTA.PDF](http://teketen.com/wp-content/uploads/2010/08/INTERNETEKO_SARE_SOZIALAK_SARE_SOZIALEN_ANALISI_DINAMIKOTIK_BEGIRATUTA.PDF))

Lehenik eta behin, testuinguru teknologikoa zer den azaldu behar dugu. Labur esanda, nabigazioaren (beraz, gizarte sare digitalen interakzio sozialaren) "frame" edo marko teknologikoa, hots: Sistema eragilea, nabigatzailea eta aplikazioa bera. Argi dago, gizarte sareen analisian, funtzeko lana ez dela testuinguru teknologiko hori euskaratzea, baizik eta euskarazko edukiak, objektu sozialak eta erabiltzaileak lortzea. Baina testuinguru hori zein hizkuntzan dagoen garrantzi handikoa izan daiteke hurrengo arrazoiengatik:

- **Nabigazio ohituretan eragina:** Interneteko interakzioa erabiltzailearen hizkuntza jarreran oinarritu daiteke. Baina, halaberrez, erabiltzailea

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

testuinguruarekin “hitz egingo” du, berarekin erlazionatuko da, eta erlazio horretan euskara ez bada erabilitako hizkuntza, erderara jotzeko eragina sortu lezake. Horrek ez du esan nahi euskaraz aritzen den norbait, demagun Facebooken, gaztelaniara joko duela automatikoki bere nabigazio ohituretan edo bere loturekiko erlazioetan (ezta kontrakoa) facebook bera, nabigatzailea edo sistema eragilea gaztelaniaz izategatik, baina ezin uka eragina (negatiboa edo positiboa euskararekiko) sor dezakela. Elementu psikologikoa izan daiteke, askok eta askok, nahiz eta euskaldun osoak izan, arrotz ikusten baitute “interneteko gauzak” euskaraz ikustea edo erabiltzea. Gure egunerokotasunean ezagunak bihurtu diren (eta ezagunagoak bihurtuko diren) hainbat mezu (“Me gusta”, “Tienes un mensaje de”, “Share this” “A X le gusta tu foto”) eta abarrekoak euskaldundu behar ditugu, euskaraz hel daitezen landu, euren eragina psikologikoa indartsua izan baitaiteke eta nabigazio-ohituretan eta hizkuntzaren erabileran, belaunaldi berrien artean batez ere.

- **Euskara nabigazio hizkuntza lehenetsia bihurtzeko:** Webgune askok eta askok euren interfasearen hizkuntza lehenetsia nabigatzailearen hizkuntza lehenetsiaren arabera ematen dute. Ondorioz, nabigatzailea euskaraz baldin badago, webguneak euskarazko bertsioa eskainiko digu hasiera batean. Egia da erabiltzaileak hori alda daitekela, beste hizkuntza bateko bertsiora salto egin eta lehenetsi, baina ez litzateke aurrerapauso txikia izango euskaldunak euskaraz nabiga dezaten eta webguneek emandako lehenengo hitza euskaraz izan dadin.
- **Ikusgarritasuna lortzeko:** Erabiltzaileak ez badu euskaraz nabigatzen (hots, nabigatzailea ez badu euskaraz instalatuta edota webgune edo gizarte sare baten euskarazko bertsioa ez badu erabiltzen) ez da euskaldun bezala agertuko estatistiketan. Azalpen erraza eman ahal izateko, ikus dezagun Eusko Jaurlaritzaren atariaren (euskadi.net) estatistikak (http://www.iusap.ejgv.euskadi.net/r47-wzeduki/eu/contenidos/informe_estudio/estadistica_web_11/eu_ga_2011/estadistica_web_2010_2011.html), 2011ko azken sei hilabetearenak hain zuzen ere:

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

| | | |
|----------------------------------|----------------------------------|----------------------------------|
| Visitas | Páginas / Visita | Duración media de la visi |
| 3.110.833 | 4,23 | 00:05:45 |
| % del total: 100,00% (3.110.833) | Promedio del sitio: 4,23 (0,00%) | Promedio del sitio: 00:05:45 (0, |

| Idioma | Visitas | Pá |
|------------|-----------|----|
| 1. es | 1.769.299 | |
| 2. es-es | 757.541 | |
| 3. eu | 355.332 | |
| 4. en | 121.498 | |
| 5. en-us | 48.801 | |
| 6. fr | 14.234 | |
| 7. es-ar | 5.760 | |
| 8. en-gb | 5.056 | |
| 9. ca | 4.624 | |
| 10. es-419 | 4.043 | |

Taula honetan euskadi.net atarian euskaraz nabigatu zutenen datuak agertzen dira. Eusko Jaurlaritzaren estatistika sistemak nabigazio-hizkuntza antzeman dezake erabiltzaileek bisitatutako URLen bidez. Guztira, sei hilabete horietan 3.110.833 bisitatan herritarrek erabili zuten euskadi.net-eko euskarazko bertsioa. Bisita guztiak, hizkuntza guztiak hartuta 12.614.284 izan ziren denbora tarte horretan. Horren ondorioz, bisita guztien %25 inguruk euskarazko bertsioa erabili zuten. Baina euskarazko bertsioa erabili zutenen artean, zein zen nabigatzailearen hizkuntza? Gaztelania, gehienetan. Ikusten dugunez, 3.110.833 bisitatik soilik 355.332tan detektatu zen euskarazko nabigatzaile bat, %11 baina apur bat gehiago. Beste modu batean esanda, euskarazko bertsioa erabili zutenen artean hamarretik bederatzik egin zuten bisita euskaraz ez zegoen nabigatzaile batekin. Datu honek ez du, kasu honetan, garrantzi handirik, estatistika sistema honek antzeman baitezake euskaraz egin diren bisitak eta Eusko Jaurlaritza euskararen erabilpenaren jarraipen zehatza egiten saiatzen delako. Baina zer gertatuko da Facebook-en, Twitter-en, Flickr-en edo mundu mailako beste gizarte sare edo webgune handietan? Estatistikek nabigatzailearen hizkuntza kontuan hartuko dutela, kasu askotan, gehienetan ez bada, batez ere euskarazko bertsiorik ez dutenen webguneetan. Euskaldunok, hortaz, jadanik garen baino askoz ere txikiagoak eta ikusezinoak garela ez badugu erabiltzen euskara nabigazio-hizkuntza lehenetsi gisa duen nabigatzaile bat.

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

Gaur egungo egoera

Segidan, testuinguru teknologikoaren egoera aztertuko dugu. Hiru mailatan sailkatuko dugu, bakoitzak bere ezaugarri eta aukerekin. Gainera, ezin ahaztu kasu gehienetan maila baxuagoek besteak baldintzatzen dutela, hau da, sistema eragileak baldintzatuko du zein nabigatzaile mota izango dugun aurreinstalatuta. Adibidez, gaztelaniaz dagoen Windowsek gaztelaniaz dagoen Internet Explorer eskainiko dio erabiltzaileari, eta gaztelaniaz dagoen Internet Explorer horrek gaztelaniazko bertsioa aktibatuko du Facebooken edo YouTubeen sartzean.

Lehenengo maila: Sistema eragilea

Ordenagailuetan Windows sistemak jarraitzen du estandar "de facto" izaten, eta ez dago epe motz/ertainean hori aldatuko den seinalerik. Microsoftek (Windows, Office zein Live-entzako) euskarazko bertsioa eskuragarri dauka bere webgunean instalatu ahal izateko (<http://www.microsoft.com/downloads/details.aspx?FamilyID=a1a48de1-e264-48d6-8439-ab7139c9c14d&displaylang=eu>). MacOS-ek, bere aldetik, ez du sistema eragilearen euskarazko bertsiorik ematen (nahiz eta sistemaren hizkuntza-identifikatzailea euskarara pasatzea posible den). Izan ere, Apple-ek euskaratzeko ekimen baten kontra jardun zuen, erabiltzaile batzuk garatutako euskarazko bertsio bat publikatzea galaraziz (<http://sustatu.com/1070222372>), bere sistemarekiko betiko izaera itxiarekin jarraituz. Hirugarren aktore nagusiak, Linuxek, bere bertsio ia guztietan aspalditik eskaini du euskarazko interfaseak (komunitateak garatutakoak, hemen erakusten da argi eta garbi nola software librearen filosofiak hizkuntza gutxituentzako apustu ezin hobea den). Tamalez, Linux banaketan hedadurak oso minoritarioa jarraitzen du izaten gaur egun.

Gailu mugikorretan (Smartphonak eta tabletak) Google Android eta Apple iOS dira gaur egungo estandarrak, merkatuaren %90a kontrolatzen baitute bion artean, antzeko merkatu kuotarekin (dena den, litekeena da Androidek pixkanaka irabaztea merkatu kuota, Apple-en politika ez baita, inondik inora, merkatuaren gehiengoa dominatzea gailu merke eta moldakorrekin, Android bezala, baizik eta merkatuaren sektore txiki bat bereganatzea produktu itxi eta, nolabait, "elitista" batekin). Apple iOS-ek bere ordenagailuetako anaia handiaren politika jarraitzen du, eta ez du euskarazko interfaserik eskaintzen, ezta komunitateak garatutako itzulpenik baimentzen (badago interfasea euskaraz jartzeko aukera, baina modu sasi-ilegal batekin, *jailbreak* delako teknikak erabiliz). Androidek, ordea, software librea denez (baieztapen honek eztabaida sakonagoa beharko luke, baina momentuz onartuko dugu Android "software libre" gisa, nahiz eta guztiz ez izan) aukera ematen du komunitateak sistemaren

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

ezaugarriak alda ditzan. Horrela, euskarazko interfaseak eskuragarri daude ROM instalagarri gisa (<http://bihardaberandu.wordpress.com/2010/05/23/android-euskaraz-prealpha/>)

Bigarren maila: Nabigatzaileak

Ordenagailuetan, merkatuko nabigatzaile nagusiek (Chrome, Firefox, Explorer, Opera) dute euskarazko interfaseak eskuragarri, Apple Safari izan ezik. Gailu mugikorretan (Android eta iOS), nabigatzailearen hizkuntza sistema eragilearen hizkuntzaren arabera izango da, nahiz eta aukerak egon beste nabigatzaileak (beste hizkuntza batean) instalatzeko.

Hirugarren maila: Webgune eta interneteko zerbitzuak

Gizarte sareetan arreta jarritz, aplikazio eta webgune nagusiek badute euskarazko interfasea eskuragarri, gehienetan erabiltzaileen ekarpen eta itzulpen lanei esker. Horrela, Facebook, Google + (eta Google-en ekosistemaren aplikazio askok, YouTubek bezala, baina ez, ordea, Blogger-ek edo Drive-ek), Wordpressek, eta Tuenti-k euskarazko interfasea eskaintzen dute (nahiz ehuneko ehunetan euskaratuta ez egon, sarritan agertzen baitira itzuli gabeko mezuak). Flickr-ek, LinkedIn-ek, ordea, ez dute euskarazko interfaserik ematen eta ez da aplikazio horiek euskaratzeko ekimenik somatzen (ez behintzat era ofizialean). WhatsApp zerbitzuak ez du bere zerbitzua euskaraz eskaintzen, baina itzulpenetan jarduteko aukera eskaintzen du euskarazko interfasea garatze aldera (<http://translate.whatsapp.com/>). Twitter-ek, bere aldetik, ez du gaur arte euskarazko interfaserik aurkeztu, baina orain dela gutxi ezagutarazi zuenez, euskaratze lanetan aritzeko aukera zabaldua dago hemendik gutxira microblogging tresna ospetsuena euskaraz erabili ahal izateko (<http://translate.twtr.com/cms/node/1810>). Datu bitxi bat: euskara izango da, katalanarekin batera, estaturik ez duen lehen hizkuntza Twitterreko interfasean.

Aukerak hor daude, eta hasierako begirada batean ondorioztatu genezake erabiltzailearen esku dagoela bere testuinguru teknologikoaren hizkuntza aukeratzea (Apple-eko sistemetatik kanpo, hau da, ordenagailu pertsonaletan %5eko eta gailu mugikorretan %35eko merkatu-kuota duen enpresak ez du euskarazko interfaserik ematen, horrek suposatzen duen guztiarekin). Webgune eta gizate sareetako zerbitzu gehienak euskaratuta daude (gehienetan, komunitatearen lanari esker, ez atzean

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

dauden enpresei esker). Gauza bere esan lezakegu nabigatzaileei buruz. Baina errealitatea ez da hain oparoa euskararentzat eta, bide batez, erabiltzaileen eskubideentzat: Sistema eragilearen eragina nabaria da (gailu mugikorretan batez ere), eta hor hutsune handia dugu euskaldunok. Euskararekiko begirune eta aukera onenak eman dituzten sistema eragileek, software librearenak alegia, zeharo minoritarioak dira, eta ez du ematen epe motzera hedatze zabalagoa lortuko dutenik. Android erabiltzen dituzten gailuak erdaraz daude ia beti, gailu horiek saltzen dituzten enpresa zein telekomunikazio operadoreek ez baitute euskarazko bertsiorik eskaintzen bere Android banaketetan, eta euskarazko bertsioa instalatzeko (guztiz garatuta ez dagoena, gainera) herritar gehienek ez dituzten ezagutza informatikoak beharrezkoak direlako. Windows-Explorer bikotearekin gauza bera gertatzen da: informatika enpresa guztiek gaztelaniazko bertsioak eskaintzen dute bakarrik, eta euskarazkoa instalatzeko sistemaren osagai berriak deskargatu behar dira (horrek dakarren lana eta, batez ere, erabiltzaileen mesfidantzarekin).

Hori guztia kontuan hartuta, hauexek izango lirateke testuinguru teknologiko euskalduna hedatzeko zailtasunak:

- Aukera falta: Sistema askok eta dute euskarazko interfaserik eskaintzen
- Informatika eta telekomunikazio enpresek erdara hutsean dauden sistema saltzen dituzte bakarrik, eta erdaraz dauden sistemetan euskarazko interfasea instalatzeko (aukera dagoenean) ezagutza teknikoak behar dira, herritar gehienek ez dituztenak.
- Motibazio eza eta kontrako aurreiritziak: Ez da behar bezala landu euskaraz jarduteko beharra ingurune teknologikoetan. Horrek nolabaiteko konpromiso eta arduraren falta ekarri du, bai euskaldunon aldetik zein administrazioen aldetik (azter dezagun bestela administrazioan dauden lan-postuetako ordenagailuak, KZ-Guneetakoak, liburutegi eta beste zerbitzu publikoko gehienak, eta abar). Horrez gain, euskaldun peto-peto askoren artean euskara guztiz arrotz bihurtu da berez arrotz duten ingurune teknologiko batean. "Nahiko konplikatu duk hau berez, ez mareatu gainera euskeraz jarriz" jarrera hedatu da egunero euskaraz bizi diren euskaldun asko eta askoren artean. Askorentzat euskaraz zailtasun gehiago ekarriko du beraientzat erasokorra den testuinguru batean. Zergatik? Ez dutelako inongo heziketa teknologikorik izan eta, izan duten gutxietan, erdaraz izan delako.

Nola eragin testuinguru teknologikoa euskaratzeko?

Kontzientziazeko kanpainak

Saiatu behar gara, aukera dagoenean, erabiltzaileek webguneen euskarazko bertsioak erabil ditzaten. Horrez gain, gero eta garrantzi handia izango duten nabigatzaileak euskaratzea guztiz beharrezkoa dugu. Horren harira, aipatu behar dugu "Nabigatu euskaraz" kanpaina (<http://nabigatueuskaraz.com/>): Bertan, nabigatzailearen euskarazko bertsioa ezartzeko pauso guztiak azaltzen dira, atxikimendua adierazteko aukera ematen da eta, garrantzitsua, *widget* bat eskaintzen da norberak bere webgunean txerta dadin, eta erdaraz nabigatzen ari direnei euskaraz nabigatzera gonbidatuz.



Nolanahi ere, nahiz eta ekimen hau oso baliogarria izan (ohartu, iradoki eta atxikimena emateko aukera emateaz gain, kanpainaren parte hartzaile eta aktore izateko aukera ematen du), ohiartzun eskasa izan zuen euskal webguneen artean. Sustatu.com izan zen kanpainaren euskarri nagusia, baina zer gertatu zen beste webguneekin? Administrazioen, euskal (edo behintzat, euskalzaletzat har ditzakegun) hedabideen edo alderdi eta erakundeen webguneek ez zuten aukera hau aprobetxatu. Utzikeria, informazio falta, erdal erabiltzaileak ez "molestatzeko" beldurra... baina aukera bat galduta. Eta guztiz beharrezkoak ditugu horrelako kanpainak, webguneetan bertan ematen direnak (interneteko testuingurua aprobetxatuz), informazio zuzena eta irtenbide zehatzak ematen dituztenak, eta kanpainaren sustatzaile eta ekintzaile izateko aukera ematen dituztenak.

Webaren aktorengan, software banatzaileengan eta telekomunikazio operadoreengan presioa

Webgune, gizarte sare eta software produktuak garatzen eta banatzen dituzten enpresa handiek, Lander Arbelaitzek kateraziak garbi utzi zuen moduan, *"ez digute sarea ireki hizkuntza minorizatuaren diskurtsoa erabili dugulako, ez gure hizkuntza salbatzeagatik ere; beraienzat merkatua gara, interesa erakutsi dugu eta erabiltzaile deseroso bihur gintezkeelako egin dute. Ezer gutxi lor daiteke mehatxuekin, baita pena ematea helburu duten mezuekin ere. Proposamenak dauka indarra, baita merkatuaren zati bat galtzeko beldurrak ere"* ([LANDER ARBELAITZ, "TWITTER EUSKARAZ DUGU, ETA ORAIN ZER?" ARGIA.COM HTTP://ARGIA.COM/ERREDAKZIO-](#)

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

[MAHAIA/LANDER-ARBELAITZ/2012/05/18/TWITTER-EUSKARAZ-IZANGO-DUGU-ETA-ORAIN-ZER/](#)

Beharrezkoa dugu interneteko eta teknologia berrietako enpresa handiak nolabait mugitu, konbentzitu. Merkatu potentzial egokia dutelako beraien produktuak saltzeko eta banatzeko, eta bere "irudi korporatiboa" hobetzeko aukera baliagarria dutela. Euskal internetzaleon komunitateak argi utzi badu nahiko indarra duela itzulpen-talde sendoak eta eraginkorrak garatzeko, zergatik horretaz ez baliatu nire produktuari balio erantsia emateko? Har dezagun Androiden kasua: ez ote zaio Google-i interesatzen bere sistema eragilean euskararen balio irentsia gehitzea? Apple-ek eskaintzen duen produktuekiko abantai konpetitiboa lortzea merkatu gune honetan aparteko inbertsio ekonomiko edo teknikorik gabe? Eta Euskal Herriko operadoreei? Ez litzaioke Euskaltel edo Eroski Movil bezalako konpainiei interesatuko Androiden banaketa elebidunak eskaintzea? Erantzuna positiboa izan beharko luke, batez ere "Euskal" marka aprobetzatzen duen (zilegitasun osoz) operadore batentzat. Administrazio publikoek ere jardun beharko lukete arlo honetan, enpresa multinazional handiekin harremanetan jarriz, laguntza eta egiturak eskainiz, eta euskararekiko begirunea erakusten duten enpresak aipatuz eta lagunduz. Eta azkenik erabiltzaileok, euskaltzaleok, euskal internetzaleok, gure eskubideen aldarrikatzaileak izanez, gure eguneroko jardunetan euskarari ikusgarritasuna emanez, enpresa eta aktore handiak zirikatuz (zentzu positiboa batean, beti) eta enpresa eta aktore horiei erakutsiz euskal eta euskararen merkatua badagoela, eta bertan irabazteko aukerak baino ez daudela.

Hezkuntzan eragitea, euskara teknologiarekin lotuz: Lehen aipatu dudan bezala, euskaldun asko eta askoren artean badago nolabaiteko mesfidantza eta beldurra ingurune teknologikoetan euskara erabiltzean. Ez da harritzekoa, orain dela belaunaldi batzuk idatzizko euskararekiko mesfidantzak eta beldurrak eman ziren bezala. Mesfidantza eta beldur horiek ezjakintasunetik datoz, ingurune jakin batean euskaraz (bakarrik euskaraz, baina bai batez ere euskaraz) jarduteko gaitasun falta baten isla dira. Euskaldun askok euskarazko alfabetizazio urria (edo hutsaren hurrengokoa) jaso zuten, ahozko jardunean oinarritutako transmisio eta ikas-prozesu baten ondorioa. Era berean, gaur egungo euskaldun askok euskarazko alfabetazio digital eskasa jaso dute (belaunaldi zaharren artean batez ere), ez daude ohituta euskaraz dauden tresnak erabiltzera, beraientzat (inkontzienteki agian) euskara eta teknologia ez dira bateragarriak, eta tresnak digitalak euskaratzea nolabaiteko bitxikeria gisa ikusten dute. Kate horrekin moztu behar dugu, eta umeen eta nerabeen hezkuntza izan behar du euskarazko tresnak testuinguru digitalean normalizatzeko aitzindari. Eskola zein institutoetako sistema eragileak, programak, nabigatzaileak eta webgune handien lehenetsitako ezarpenak euskaraz egon beharko lukete. Umeak eta nerabeak ohitu behar ditugu euskarazko testuinguru teknologiko batean ikastera, lan egitera, murgiltzera, eta beraientzat arrotza izatea euskaratuta ez dauden interneteko

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

tresnetan, webguneetan zein gizarte sareetan jardutea. Internet, teknologia eta euskararen arteko lotura inkontzienteak sortzea eta indartzea, euskararen erabilera areagotuz eta hizkuntzari prestigioa eta modernitasun kutsua emanez.

Blogak eta euskal blogosfera

Zer da blogosfera?

Blogak izan ziren Web 2.0 aro berriaren lehen aktore nagusiak. Arestian aipatu dugun bezala, blog bat webgune mota bat da, artikuluetan (post) oinarrituta, kronologikoki agertzen direnak, kategoriatan eta etiketen bidez sailkatuta eta erabiltzaileentzat iruzkinak egiteko aukera ematen da. Bisitari "arrunt" baten ikuspuntutik bloga edozein webgune baten ezaugarriak euki baititzake (edukiak, orriak, kategoriak, eta abar) blogen sorrera aldaketa handia ekarri zuen Web ingurunera atzean zekartzaten filosofiagatik: edonork sortu ahal zuen blog bat (horretarako doako tresna eta zerbitzu ugari sortu ziren), askatasunez edozein gai jorratzeko eta erabiltzaileei euren iritziaik uzteko askatasuna emanez iruzkinetan. Horrez gain, blogen edukiak jarraitzeko sistema automatizatuak asmatu eta hedatu ziren (RSS bidezko sindikazioa) eta blogen arteko aipuak, iruzkinak eta loturak sustatzeko teknikak etorri ziren (Pingback, Trackback, etab.), nolabaiteko gizarte sare banatu bat sortuz : blogosfera.

Blogosfera euskaldunaren egoera

Euskal blogosferari dagokionez, Sustatu.com izan zen euskal blog guztien artean aitzindari. Lehen euskal blog hori 2001eko urriaren 29an jaio zen, CodeSyntax enpresak eta Goiena komunikazio-taldeak kudeatuta (gaur egun jarraitzen du euskal blogari eta internetzale guztion artean erreferentziazko bloga izaten). Horren ondoren, euskal blogosfera hedatzen eta handitzen hasi zen etengabe: 2001eko bukaeran EHUko Gorka Palazio irakasleak Berriemale.com sortu zuen, 300 ikasleren blogak ostantzen eta wordpresseko lehen bertsio euskaratua erabili zuena. Ondoren hainbat blog eta blog plataforma zein komunitate sortu zen: Sarean.com bloga (Jabi Zabalak, 2003an), Eibar.org komunitatea (Sustatuko kudeatzaile nagusia den Luistxo Fernandez ek, beste batzuen artean, 2004an), Goiena.net blog komunitatea eta Blogak.com eta Blogari.net plataformak 2005ean...

Zaila da jakitea zenbat blog dauden euskaraz gaur egun. Joxe Aranbarriren "Faroa" blogean (<http://goiena.net/blogak/faroa/zenbat-blog-daude-euskaraz>) 2007an

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

agertutako datuen arabera, 4500 euskal blog inguru lirateke, eta Technoratiko David Sifryren konpensazio-tasa aplikatuz gero (tasa horren arabera erregistratu dauden blog guztien %55 "hilda" egongo lirateke, inork ez baitu jada kudeatzen) kopuru hori 2475 blogetara jaitsiko litzateke. Aztertutako blog horiek hurrengo euskal plataformetan daude banatuta:

- Blogari.net: 2.435 blog (2010ean blogariak.net aurkeztu zuten, aurreko tresnaren garapena sare sozial baten ezaugarri gehiagorekin, eta 2011n blogari.net-en itxi zuten erregistro berriak egiteko aukera. 2012an, 300 blog inguru daude blogariak.net-en).
- Blogak.com: 1.200
- Nireblog.com: 588 (2012ko uztailean itxiko du zerbitzua)
- Mundua.com: 250 (2012an 700 inguru)

Datu horiei gehitu beharko genizkieke Euskal Herriko beste komunitate batzuenak (Iturria: http://eu.wikipedia.org/wiki/Euskal_blogosfera):

- EHU: 500 bat blog (2007ko uztailean).
- Goiena.net: 123 (2012an 80 inguru)
- Jakintza Ikastola (Ordizia): 110.
- Deustuko Unibertsitatea: 44.
- Eibar.org: 23.
- Uztarria.com: 23.
- Berria egunkaria: 18.

Nolanahi ere, aurreko zenbaketa horietan ez dira kontuan hartu lau plataforma horietatik kanpo dauden Euskal Herriko hainbat blog eta komunitate euskaldun (Zuzeu, Hitza, Argia...) , plataformetatik kanpo daudenak, administrazioenak eta, garrantzitsuena, mundu mailako blog plataforma handienak (Blogger eta Wordpress.com batez ere). Horien egoera aztertzeko, Google Blog Search erabili beharko dugu. Azken urteko artikulua bilatuko ditugu euskaraz. Ezinezkoa denez tresnaren bitartez datu hori bilatzea (ez du, memento, euskara detektatzeko aukerarik), euskaraz maiz erabiltzen diren hitzak bilatuko ditugu. Ahalik eta hurbilketa zehatzena egiteko, erabaki dut "eta" eta "ez" hitzak bilatzea (biak agertu behar dira

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

post edo iruzkinetan) emaitza onenak eta fidagarrienak ematen duen konbinazioa delako (esate baterako, sustatu.com-en aurkitutako post guztiak 1.060 dira, eta hitz konbinazio hori erabilia emaitza bera. Zuzeu.com-en post guztiak 6.860 dira, eta hitz konbinazioa erabilia 6.810). Emaitzak ondorengo hauek dira (parentesien artean, hizkuntza guztietan aurkitutako emaitzak, konparaketak egiteko zein bilaketaren errore-tasa kontuan hartzeko blog komunitate euskaldun elebakarretan):

- Euskaraz aurkitutako artikulak, guztira: 192.000
- Blogger.com: 136.000 (330.000.000)
- Hitza.info: 22.000 (22.500)
- Wordpress.com: 13.800 (69.600.000)
- Blogak.com: 2.700 (3.130)
- Zuzeu.com: 2.000 (2.020)
- Argia.com: 1.180 (1.200)
- Blogari.net/Blogariak.net: 1.084 (1.900)
- Sustatu.com: 1.060 (1.060)
- Goiena.net: 402 (714)
- Mundua.com: 384 (520)
- EHU: 368 (1.130)

Datu hauei erreparatuta, argi dago blog euskaldun gehienak ez dituztela Euskal Herriko blog plataforman erabiltzen, gehienetan. Euskaraz argitaratzen diren blog gehienak (%70 inguru) Blogger plataforman daude. Nolabait, blogari euskaldun gehienek mundu mailako blog zerbitzu arrakastatsuena erabiltzen duten gehienbat. Hori Bloggerrek berak duen ospeagatik izan daiteke, eta Google ekosisteman duen integrazioagatik ere. Baina ondorio nagusia zera izan liteke: euskal blogariei ez zaie axola "euskal" plataformak erabiltzea, edo euskaraz dauden interfaseak erabiltzea (Wordpress bera euskaratuta dago). Heren batek jotzen du euskarazko interfaserik ez duen nazioarteko erraldoiaren zerbitzura, eta gutxiengo batek erabiltzen ditu Euskal Herriko plataformak edo komunitateak. Blogger eta Wordpresen arteko gudan euskaldunok lehenengoaren alde egiten dugu argi eta garbi (bien arteko artikulak kopuruen

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

diferentzia askoz handiagoa da euskararen bestetan baino), naiz eta bigarrena euskarazko interfaseak (baina ez osoak) eskaini. Blogger-ek duen ospeaz eta Google-en ekosistemaren parte izateaz gain, agian Wordpress ingurune profesionalagoekin lotzen dute erabiltzaile askok (gogora dezagun Wordpress ez dela soilik blogak sortzeko online zerbitzu bat, baizik eta blogak eta webguneak kudeatzeko sistema, software libre gisa banatuta, eta agian gaur egungo CMSen artean malguena eta erabiliena). Bi zerbitzu handi horietaz aparte, euskal blogosferan mundu mailako beste zerbitzu ezagunek (Tumblr, Blogsome, Typepad, eta abar) garrantzi gutxiko emaitzak (hutsaren hurrengokoak egia esateko) ematen dute euskarazko artikulak bilatzean. Deigarria da, tokiko alternatibak aztertzen baditugu, Hitza.info webgunearen baitan aurkitzen den artikulua kopurua. Goiena.net-eko desfasea bi emaitzen artean mezu motzen ugaritasunagatik azal daiteke, bertan dauden ia artikulua guztiak euskaraz baitaude.

Euskal blogosferaren bilakaerari dagokionez, datu bilketa bera erabiliko dugu Google Blog Search bidez. Kasu honetan, denbora epeak bi urteko ekainetik ekainera izango dira, lehen erabilitakoarekin jarraitzeko. Datuak oparoak dira eta hazkunde-tasa sendoa erakusten dute:

| Urtea | Artikuluak |
|-----------|------------|
| 2005/2006 | 3400 |
| 2006/2007 | 23400 |
| 2007/2008 | 29000 |
| 2008/2009 | 58700 |
| 2009/2010 | 75000 |
| 2010/2011 | 109000 |
| 2011/2012 | 192000 |

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak



Zein da, bestetik, euskal blogosferaren egoera, munduko beste hizkuntzekin konparatuta? Google Blog Search tresna erabiliko dugu berriro, euskararen eta inguruan dauden beste hizkuntzen arteko konparaketa egiteko, bai zenbaki absolutoetan zein hiztun-kopurua aintzat hartuta. Emaitzak azken urteko artikulua jasotzen dute. Hauexek dira emaitzak:

- Artikuluak ingelesez: 825.000.000 (510.000.000 hiztun - 1,61 artilulu/hiztun)
- Artikuluak alemanieraz: 52.100.000 (120.000.000 hiztun - 0,43 artikulu/hiztun)
- Artikuluak gaztelaniaz: 46.800.000 (500.000.000 hiztun - 0,09 artilulu/hiztun)
- Artikuluak frantsesez: 11.500.000 (500.000.000 hiztun - 0,02 artilulu/hiztun)
- Artikuluak neerlanderaz: 4.760.000 (27.000.000 hiztun - 0,17 artikulu/hiztun)
- Artikuluak katalanez: 1.380.000 (11.500.000 hiztun - 0,12 artilulu/hiztun)
- Artikuluak estonieraz: 886.000 (1.100.000 hiztun - 0,80 artikulu/hiztun)
- Artikuluak islandieraz: 279.000 (320.000 hiztun - 0,87 artilulu/hiztun)
- Artikuluak euskaraz: 192.000 (800.000 hiztun - 0,24 artilulu/hiztun)

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

Datu hauek positiboak dira euskararentzat eta euskal hiztun-komunitatearentzat. Urtero 192.000 artikulua baino gehiago argitaratuak izatea euskaraz, hots, egunero 500 baino gehiago millioi bat hiztun izatera heltzen ez den hizkuntza ahuldua, historikoki baztertua eta mespretxatu batentzat duela hamarkada batzuk gutxik (ia inork) amesten ez zuen egoera da. Egia da ezin garela baiezkortasun noragabe batean erori: euskarak egoera minorizatu eta diglosiko baten ajeak pairatzen ditu bai interneten, orohar, zein blogosferan, eta gaztelaniako blogosferarekin (zer esanik ez ingeleskoarekin) laku handi batean aurrera joaten saiatzen den komunitatea garela. Baina datuak aintzat hartuta, ondoriozta daiteke, inolako harrokeriarik gabe, euskal blogosfera sendo eta emankorra dugula.

Emaitzak are eta positiboak dira beste hizkuntzatan ematen diren emaitzekin konparatuta, hiztun bakoitzeko "ratio"-ari erreparatzen badiogu. Hemen hizkuntza bakoitzaren ezaugarri jakin batzuk hartu beharko ditugu kontuan. Konparaketa egiteko Europa eremuko hizkuntza batzuk hartu ditut ("hirugarren munduko" hizkuntzetan eten digitalaren eraginak emaitzak desitxuratu baitezake). Ingelesak, interneteko eta nazioarteko edozein esparruko "lingua franca" bihurtuta, ratio handiena erakusten du hiztun bakoitzeko (nahiz eta hiztun horien artean multzo handi batek ingelesa bigarren edo hirugarren hizkuntza bezala erabili, oihartzun handiena lortzeko -batez ere arlo tekniko edo zientifikotan- hizkuntza aproposena da). Frantsesak, ordea, ratio oso baxua erakusten du, ingelesa bezala hiztun askok (gehienek, ingelesaren kasuan baino gehiagok) bigarren edo hirugarren hizkuntzat bezala dutelako, baina ingelesa ez bezala, frantsesak ez du ingelesaren "lingua franca" estatus hori. Gaztelaniaren ratioa txikia da, nahiz eta ama hizkuntza gisa dutenak gehiengoa izan, ziur aski hegoamerikan oraindik ere ematen den eten digitalaren eraginagatik. Guztiz deigarriak dira Google-ek automatikoki errekonozitzen dituen hizkuntza minorizatu ia bakarraren datuak, katalanarenak alegia. Gaztelania edo frantsesa baino ratio altuagoa dauka (hizkuntz minorizatuak izateak hiztunen artean sortzen duen motibazioagatik, beharbada), baina euskararen ratiotik urrun. Honek blogosfera euskaldunaren alde hitz egiten du, katalana beti izan baita nolabaiteko "eredua" euskal herrian; alabaina, nahiz eta euskara baino egoera hobean egon (gutxitua ere, baina hiztun-kopuru eta hiztun-dentsitate altuagoarekin eta normalizatuagoa gizartean zein administrazioan), euskal blogosferak katalanak baino emaitza oparagoak ditu (sortzaileagoak bederen). Egoera "normalago" batean (eta, ezin uka, kultura digitalean askoz murgildutagoak) dauden hizkuntzek (alemaniera, neerlandera) euskarak baino ratio altuagoak erakusten dituzte. Aipatzekoa da islandieraren eta estonioaren kasuak, biak hizkuntza txikiak baitira, eta ratio oso altuak erakusten dituztelako. Azken bi hizkuntza hauen blogosferaren oparotasunaren adierazleak hiru parametrotan azal daitezke: Kultura digitalean sakonki murgilduta egotea (estonian batez ere, herrialde horrek modu ikusgarrian

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

bultzatu baititu informazioaren gizartea azken hamarkadan), hizkuntza normalizatuak eta nagusiak izatea haien lurraldetan, eta hiztunen hizkuntza-kontzientzia handiari (biak hiztun gutxiko hizkuntzak dira eta biek aurre egin zioten kanpotik etorritako asimilazio-prozesuei, hala Danimarkatik nola Errusiatik).

Blogosfera euskaldun indartsua eta langilea dugu, beraz, nahiz eta euskara egoera minorizatu eta diglosiko batean bizi. Izan ere, egoera hori izan daiteke blogosfera indartsu hori garatzeko arrazoietakoa bat. Kontuan haru behar dugu blog bat sortzea eta bertan idaztea gizarte sare "orokorretan" (Facebook, Google +, eta abar) baino ekintza kontzienteagoa, landuagoa eta pertsonalagoa dela. Blog bat idaztean, ez dakigu nork irakurriko (edo iruzkinduko edo elkarbanatuko) duen, interneten publikatuko da eta edonork jasoko du. Facebook, Tuenti edo Twitter bezalako tresnetan, ordea, gure lagun taldearen (edo jarraitzaileen) hizkuntza egoerak baldintzatuko du era indartsuago batean gure hizkuntzaren aukeraketa. Zelan jardungo du gizarte sareetan lagun (edo jarraitzaile) talde erdaldun elebakarra duen euskaldunak? Gaztelaniaz edo frantsesez, ia beti, edonork ezagutzen dituen agurrak, espresioak edo bestelako euskal "nortasun ikurrak" eralbitzen duenean izan ezik ("agur", "musus!", "zorionak", "kaiku txapeldun", eta abar). Interakzioa talde horren barruan mugatua dagoen bitartean ez dago beste aukerarik. Beste modu batean esanda, gizarte sare "orokorren" loturak mundu fisikoak ezarriko ditu, gehienbat. Eta gaur egungo euskaldun tipologia berrian, euskaldun askok eta askok ingurune erdaldunetan bizi diren euskaldun berriak direnez, eskema hori errepikatuko da behin eta berriro. Egia da gizarte sareei esker "lotura arinak" kudeatzeko ahalmena eta, nolabait, hautatzeko askatasun handiagoa dugula, eta lotura arin horiek euskaldunak badira, eta gure "lotura sendoekiko" (erdaldunak gehienbat) interakzioa izaterari uko egiten badiogu, orduan bai izango litzatekeela posible euskarazko jardun normalizatu izatea. Baina baldintza horiek oso gutxitan beteko dira. Blogak eta blogosfera ez dira paradigma horretan erortzen, ez hain modu indartsuan, behintzat. Bloga sortzean, artikuluak idaztean, bestean artikuluak bilatu, irakurri edo iruzkintzean gure mundu fisikoko inguruneak ez dizkigu hain muga zorrotzak ezarriko. Oionen bizi den euskaldunak bilatu ahalko ditu blogosferan nahi duen informazioa euskaraz, sortu ahalko ditu gustuko duen gai bati buruzko artikuluak euskaraz, eta besteenak iruzkindu eta, pixkanaka, elkarrizketak sortu, eztabaidak garatu eta komunitateak sortu mundu fisikoaren mugak gaindituz. Nolanahi ere, blogak eta blogosferak badute euren mugak ere. Ez gara Wired aldizkarian Paul Boutinek argitaratuko "Kill your blog" artikulu ospetsuaren (http://www.wired.com/entertainment/theweb/magazine/16-11/st_essay) ezkortasunean ereriko, han esandako gauza asko (blogen inpersonalizazioa, enpresa eta hedabide handien nagusitasuna blogosferan,

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

komunikazio azkarrerako ezintasuna, “troll”-en ugaritzea, eta abar) ez baitira guztiz baliogarriak. Baina egia da, gaur egun, blogosferak gizarte sare gisa erabiltzeko aukerak oso gutxitan erabiltzen direla. Blogak “elkartzeko” edo, nolabait “federatzeko” aukera asko ezer ezean geratu dira erabiltzaile multzo handienarentzat. Egia da, gaur egun, informazioa azkar eta modu errazean garrantzeko eta hedatzeko tresna askoz aproposagoak daudela (Facebook, Twitter, kasu) blogak baino. Zer esanik ez “konektatzeko” eta interakzio azkarrak sortzeko. Baina tresna horiek zentralizatuak dira, euskara "mainstream" handi batean diluitzeko arrisku larrian egon daiteke. Gizarte sare erraldoi horiek guztiz baliagarriak dira euskararen aldeko mezua zabaltzeko, jendea erakartzeko eta euskadunak kontzientzatzeko, baina euskarak beharko du sare banatuak, trinkoak, bertan elkarrizketak eta benetazko elkarrekintzak sortzeko, eta Facebook bezalako plataforma espansiboek interneteko berzentralizazio saiakera horretatik aldentzeko, elkarrekintza eta benetazko komunitate euskaldunak garatuz sarea euskal edukiez hornitze aldera. Eta blogak eta blogosfera izan litezke horretarako tresnarik eraginkorrenak. Edukiak sortzeko garaian norbanakoak eta komunitate txikiak dira eragile garrantzitsuenak euskara bezalako hizkuntza txiki eta gutxituetan, eta Facebook bezalako ereduak norbanakoen eta komunitate txikien sormen ahalmena gutxitzen eta alboratzen dute, euren jarduna, kasu gehienetan, atxikimenduaren eta parte-hartzearen kulturara (“like”, iruzkinak, elkarbanatzea) mugatzen delako, mass media eta interneteko nodo handiek sortzen dituzten edukieko atxikimenduari hain zuzen ere.

Microblogintza tresnak: Twitter

Sarrera

Mikroblogintza (“Microblogging” ingelesez) Web 2.0rekin sortutako zerbitzu mota bat da. Bertan, erabiltzaileek sortu eta paretatu ditzakete testu mezu motzak (Twitterren kasuan, esate baterako, 140 karakterekoak gehienez) hainbat tresnaren bidez (web interfaseak, aplikazioak, sms mezuak, eta abar). Mezu horiek erabiltzailearen profilean agertzen dira, eta edonork irakur ditzake (erabiltzaileak ez badu aukera hori mugatzen). Erabiltzailearen “jarraitzaile taldean” daudenek zuzenean jasoko dituzte mezu horiek euren orri nagusian.

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

Mikroblogintza zerbitzu famatuena eta erabiliena (egia esan, ia monopolio baten papera hartu duena mikroblogintzan) Twitter da, Jack Dorseyk 2006 urtean sortua. Bere sorreratik etengabe hazi eta hedatu da . Gaur egun 140 milioi erabiltzaile ditu eta egunero 340 milioi mezu ("tweet") baino gehiago sortzen dira bertan (<http://blog.twitter.com/2012/03/twitter-turns-six.html>).

Twitteren "mikroblogintza" ari garenean blogen ezaugarritako batzuen garapena delakoan gaude, hau da: norbanakoek sortutako informazio unitateak (artikuluaren ordean 140 karakteretako "tweeta", hortik "mikro" aurrizkia), edonork irakurri, komentatu, edo elkarbanatu ditzaketenak, eta blogen filosofiaren nolabaiteko sinplifikazioa dakartenak. Horrez gain, zerbitzu honek telefonoetako SMS mezularitza zerbitzuaren aztarna asko ditu, eta interneteko berehalako mezularitza zerbitzuarenak ere (mezu motzak, berehalakotasuna), azken hau modu asinkrono batean. Horri gehitu behar zaio gizarte sare baten ezaugarri asko (erabiltzaile guztiek profil propioa daukate, erabiltzaile bakoitzak aukera dezake zein erabiltzailerri jarraitu, nori egin erreferentzia, zein gako-hitza erabili jario jakin batean agertzeko, eta abar). Gorka Julioren hitzetan, "berehalako mezularitza asinkrono soziala" ezarri duen sistema da.

Euskararen egoera Twitterren

2012ko maiatzean Twitterrek iragarri zuen bere blog ofizialaren bidez (<http://translate.twtr.com/cms/node/1810>) bere plataforma euskaratzeko eta ondoren bere sisteman txertatzeko prest zegoela. Horretarako, bere itzulpen tresnaren (<http://translate.twtr.com/home>) bidez Twitterreko erabiltzaileek mikroblogintza plataformaren euskarazko itzulpenak sortu ditzakete (egun, glosarioaren %100 dago euskaratuta, eta tresnaren beraren %35). Horrez gain, artikuluan iragarri zuten zein hizkuntzetara ireki zuten zerbitzua: euskararekin batera, katalanera, ukrainierara, grezierara, txekierara eta afrikaansera. Kontuan izan behar da, behin bukatuta eta argitaratuta, euskara eta katalana izango direla estatu propiorik ez duten lehenengo hizkuntzak Twitterreko interfasean eta, guztien artean, euskara izango da hitzun gutxien duena. Twitter egun 28 hizkuntzatan erabil daiteke. Enpresak emandako datuen arabera, milioi erdi bat itzultzaileko komunitateak lagundu du lan horretan. Euskaratzea eskatzeko zenbait kanpaina egin zituzten erabiltzaileek sarean, ARGIAko kazetari Lander Arbelaitez hasitakoa, esate baterako, edo Joseba Kamiok "Maite zaitugu, maita gaitzazu zuk ere" lemapean abiatutakoa.


Twitter interfasea euskaratzea ez da lorpen makala, testuinguru teknologikoaren (kasu honetan, interfasearen hizkuntza) eragina, bai psikologikoa, bai hizkuntza bati buruz dagoen pertzepzioan gutxietsi ezin delako. Nolanahi ere, interfasea eta tresna bera

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

euskaratzea baino askoz garrantzitsuagoa tresnak euskarazko edukiez hornitzea. Luistxo Fernandezek bere blogean aipatzen duen bezala (<http://eibar.org/blogak/luistxo/twitter-ontsa-euskaratzeko-bidea>), "menua" euskaraz izatea garrantzitsua da, baina berebizikoa da "jana", hots, edukiak euskaraz izatea. Bere ustean, Twitter biziki garrantzitsua izan daiteke: "sare sozial baino gehiago, hedabide apurtzaile bat (disrupzioa dakarrena). Kultura transmisiorako gako, komunitate baten bizitasunaren adierazle, meme-en iturri eta bideratzaile, esperientzia estetiko bat ere bai. Twitterren euskara egotea oso inportantea da, eta bereziki, funtsezko informazioa eta iritzia euskaraz mugituko duen erdigune edo nukleo txepetxiano bat gorpuztea". Horrekin agian lotu genezake Twitterren izaera bera: norbaiten jarraitzaile bihurtzean lotura edo harreman estuek (lagunak, familia, lankideak) ez dute gizarte sare "orokorretan" duten garrantzia, Facebooken edo Tuentin bezala, esate baterako. Informazio bilaketa eta erabiltzaile bakoitzaren sarearen garapena interesa pizten duten gaien arabera egiten da, gehienbat. Egia da "social media" guztien zerbitzuen arteko nahasketa ematen dela askotan (kuadrilla batzuk twitter erabiltzen dutela, edo erabiltzaile askok Facebook erabiltzen dutela hedabideen albisteak jasotzeko, eta abar), baina orokorrean Twitterreko informazio hautaketa eta sare pertsonalaren eraketa ez dago hain baldintzatuta kanpoko eragileengatik. Hortaz, bideragarria litzateke "nukleo txepetxiano" horien garapena eta euskaldunentzako euskarazko loturak (arinak, edozein kasuan, baina loturak azken finean) eraikitzea Twitter bezalako tresna batean nahiz eta, bere izaeragatik, soilik berehalako komunikaziorako izan, Twitterren zaila baita benetazko komunitateak edo elkarrizketak sortzea.

Twitter, berez, nahiko tresna kaotikoa da, informazio-jarioa etengabea da eta sarearen loturak behin eta berriro alda daitezke eta aldatzen dira. Zaila da, hortaz, hizkuntzen egoera aztertzea, kontu askoetako (gehienetako, ziuraski) jarioa eleanitza baita, eta Twitterrek ez duelako hizkuntzak detektatzeko sistemarik ematen. Azterketa guztiak, ondorioz, analisi linguistikoan oinarritu behar dira, horrek dakarren zailtasun guztiekin. Nolanahi ere, nazioartean hiztun gehien dituzten hizkuntzei erreparatzen badiogu, ingelesaren nagusitasunarekin topo egingo dugu, nahiz eta nagistasun hori beheranzko joera garbia erakutsi (http://semicast.com/downloads/Semicast_Half_of_messages_on_Twitter_are_not_in_English_20100224.pdf). Hona hemen Semicast kontsultoriak 2011ko urrian argitaratutako grafika Twitterreko hizkuntza nagusiak erakusten duena (http://semicast.com/publications/2011_11_24_Arabic_highest_growth_on_Twitter) :

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak



Euskararen egoera aztertzeko bi tresna baliotsuak aurkituko ditugu: Indigenoustweets eta Umap

Indigenoustweets.com

Tresna hau Kevin Scanell AEBetako San Louis Unibertsitateko Informatika Zientzien irakasleak sortu zuen 2011n. "Robot" baten bidez, aplikazioak Twitterreko mezu guztiak arakutzen ditu eta, arau linguistikoak aplikatuz hizkuntza gutxituetan argitaratzen diren tweetak jasotzen eta aztertzen ditu. Bere esanetan, "gero eta hizkuntza-talde gehiago ari dira sarera jotzen beren hizkuntza indarberritzeko. Ondorioz, gaur egun milaka lagun ari dira blogatzen eta Facebook nahiz Twitter bezalako sare sozialak erabiltzen beren jatorrizko hizkuntzan. Gune hauei esker, orain arte sakabanatutako zenbait komunitate gaur egun konektatuta daude eta erabiltzen ari dira beren hizkuntzak sarean modu naturalean".

Indigenoustweets tresnak ez ditu hizkuntza gutxitu guztien datuak ematen. Bere sortzailearen blogan azaltzen denez, ez dira Kreolera, Euskara edo Galesa gainditzen

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

duzen hizkuntzen datuak artertzen (<http://indigenoustweets.blogspot.com.es/2011/03/how-many-languages-are-out-there.html>). Hortaz, datuen arabera, hauek dira Twitterren gehien erabilitako hizkuntza "gutxituak" (lehenengo hamabostak):

| Language | Users | Tweets |
|-------------------|-------|---------|
| Haitiko Kreolera | 14259 | 2038690 |
| Euskara | 11256 | 1502747 |
| Galesa | 7974 | 985657 |
| Irlandar Gaelera | 3161 | 167686 |
| Frisiera | 2035 | 391576 |
| Kapanpanganera | 1221 | 285222 |
| Asturianera | 719 | 123731 |
| Somaliera | 558 | 84729 |
| Eskoziako Gaelera | 346 | 51692 |
| Setswanera | 314 | 349195 |

Tresna bera erabilia, hauek lirateke euskaraz jarduten duten lehen hamabost erabiltzaile nagusiak, tweer kopuruaren arabera:

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

| | Erabiltzailea | Euskara | Guztira | % Euskara | Jarraitzaileak | Jarraitzen |
|----|-----------------|---------|---------|-----------|----------------|------------|
| 1 | berria | 22704 | 25234 | 90.0 | 9498 | 525 |
| 2 | euskalherrian | 22093 | 44166 | 50.0 | 2505 | 77 |
| 3 | toki_kom | 16072 | 18365 | 87.5 | 220 | 23 |
| 4 | txargain | 14854 | 18611 | 79.8 | 380 | 198 |
| 5 | eitbcomBerriak | 11675 | 12602 | 92.6 | 1884 | 130 |
| 6 | goiena | 10540 | 11773 | 89.5 | 1108 | 290 |
| 7 | euskaljakintza | 9648 | 17344 | 55.6 | 3558 | 1023 |
| 8 | theklaneh | 9230 | 17863 | 51.7 | 958 | 291 |
| 9 | joxe | 8594 | 14874 | 57.8 | 1129 | 673 |
| 10 | www_ukberri_net | 7899 | 8601 | 91.8 | 1003 | 705 |
| 11 | ameslaria | 7563 | 18222 | 41.5 | 1068 | 1372 |
| 12 | iturri | 7312 | 16749 | 43.7 | 1867 | 993 |
| 13 | argia | 7056 | 8433 | 83.7 | 4484 | 490 |
| 14 | euskalblogos | 6694 | 8209 | 81.6 | 536 | 43 |
| 15 | GaiakLiburuak | 6688 | 12207 | 54.8 | 218 | 1021 |

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak**Umap.eu zerbitzua**

Zerbitzu hau CodeSyntax enpresak garatu zuen. Twitterreko euskarazko jardun guztiaren batzailea izateko jaio zen, erabiltzaile euskaldunak detektatuz eta haien jarraipena eginez. Erabiltzaileak argitaratutako tweet guztiak filtratzen ditu ondoren, soilik euskaraz daudenak erakusteko prozesu automatiko baten bidez. Euskara detektatzeko hizkuntza adierazleetan oinarritzen den algoritmo bat erabiltzen du, enpresaren esanetan %95eko egokitasuna duena. Umap zerbitzua katalanez eta galesez argitaratutako tweetak jarraitzeko aukera ematen du ere.

Tamalez, hilabete batzuetatik hona CodeSyntaxek ez du Umap zerbitzua jada mantentzen. Tresnak aktibo jarraitzen du, eta euskarazko jarioa ikus daiteke, baina funtzionalitate ugari (gako hitzak, azken berriak, etab.) ez daude erabilgarri, Twitterren APIren mugak direla eta. Edonola, emandako datuak aztertuz, guztira 14.374 euskaldun jarraitzen ditu Twitterren, eta aurkitutako mezuak 9.493.011 dira.

Umap.eu: azken egunetako tuitelari aktiboak

| erabiltzaile-izena | Izena | Nongoa | Tuitak. |
|---------------------------------|------------------------------------|------------------------|---------|
| euskalherrian | EuskalHerrian.info | Euskal Herria | 26370 |
| txargain | leire | eibar | 11206 |
| berria | Berria.info | Euskal Herria | 12692 |
| ionarozena | Ion Arozena | Zarautz | 1321 |
| betihesean | Oier Azkarraga | Zuia | 3045 |
| antxoneh | Antxon Rodriguez | Sopela - Euskal Herria | 205 |
| toki_kom | TOKIKOM | Abadiño | 10544 |
| eitbcomBerriak | EITB Albisteak | Bilbao | 9216 |
| uxue_askatasuna | uxue landa | Euskal Herria. | 1047 |
| ingarang | G Aranguren | Zarautz (EH) | 1781 |
| DiazZelaia | aitor diaz zelaia | | 1142 |

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

| | | | |
|---------------------------------|----------------------------------|---------------------|------|
| Atortxu | Aitor Lizarraga | Zizur Txikia - (EH) | 1362 |
| Lanabesa | Lanabesa | Bilbo | 2408 |
| ezkerabertzalea | Ezker Abertzalea | Euskal Herria | 1843 |
| etakitto | ...eta kitto! | Eibar | 1264 |

Ikus dezakegunez, erabiltzaile aktiboen artean erakunde-hedabideak zein norbanakoak daude. Umapek ematen duen taula osoa hartuta, argi ikusten da erakunde eta hedabideak direla tweet gehien argiraten dituzten erabiltzaileak, baina norbanakoen multzo handiak haiek baino tweet askoz gehiago argitaratzen dituztela. Hau da, euskarazko Twitterrean, hizkuntza gehienetan bezala, erakundeak eta hedabideak (azken hauek batez ere) direla erabiltzaile aktiboenak, baina haien atzean doazen norbanakoen multzoa dela, alde handiz, tweet jarioaren egile nagusiak.

Tresnak ez du ematen "tweet" gehien argitaratu duten zerrenda jasotzeko ezta dataren (edo beste filtroen) araberrako azterketa egiteko aukerarik. Gainera, gaur egungo Umap-en egoera ez du datu orokor guztiz fidagarririk ematen. Edonola, tresna eraginkor bat ematen digu tweetak aztertzeko: euskarazko jarioa eta tweet bakoitzaren edukia. Jarioaren tarte zehatzak hartuz (2012ko ekainaren 5koa, gaueko 10etatik 11ak arte) hauexek dira atera ditzakegun ondorioak:

- Ordu batean ia 800 tweet argitaratu ziren.
- Gehienak tweet pertsonalak dira, ez erakunde/hedabide batenak (azken hauek %20 inguru dira, gutxi gora behera)
- Freskotasuna da nagusi, mezu pertsonalak
- Ez da hizkuntzaren erabilera "hiperzuzena" egiten: euskalkiak, kontrakzioak, kaleko esamoldeak eta abar nagusi dira (beharbada, tweet formatu txikiak eta Twitterren azkartasuna eta berehalakotasunak baldintzatuta)
- Erakunde/Hedabideen tweetak euskara batua "zuzen" batean daude. Tweet pertsonalak euskalkiak, kontrakzioak eta kaleko hizkera erabiltzen dituzte. "Code Switching" ere badago gaztelania eta euskararen artean, baina gaztelaniaren erabilera lokuzio jakin batzuetara mugatzen da irainak, txantxak, esamoldeak... (Umapek euskara detektatzeko arauak agian zerrenda honetatik kanpo utz lezakete kontrako tweetak, non euskara esamolde jakin batzuetara mugatzen den: "kaixo", "agur", "zorianak"...))

Gizarte sareak: Facebook eta Tuenti

Sarrera

Atal honetan, gizarte sare "orokorrak" aztertuko ditugu, eta euskarak bertan duen lekua eta erronkak. Gizarte sare "orokorrak" aipatzen dugunean, pertsonak euren artean harremanetan jartzeko balio duten interneteko gizarte sare aplikazioei buruz ariko gara, "objektu sozialak" partekatzeko balio dituztenak (egoerak, testuak, irudiak, bideoak, loturak, eta abar). Gizarte sareak dira, blogosfera, mikroblogintza eta tresna kolaboratiboekin batera Web 2.0ren elementu eta zerbitzu nagusiak.

"Gizarte sarea" terminoa nahiko lausoa da, eta hainbat zerbitzuri aplikatu dazioke: blogak eta blogosferak badute sare sozial baten ezaugarri asko, mikroblogintza zerbitzuak (Twitter, adibidez), gune kolaboratiboak (Wikiak) edo esteka edo albisteak gehitzeko eta elkarbanatzeko zerbitzuak (Delicious, Digg). Zentzu zorrotz batean, bi gizarte sare mota ezberdin ditzakegu:

- Gizarte sare bertikalak: Objektu sozial jakin bat elkarbanatzeko sortuak direnak (YouTube -bideoak-, Flickr edo Picasa -Argazkiak-, Aurkezpenak -Slideshare-, eta abar)
- Gizarte sare horizontalak: Objektu sozial mota asko elkarbanatzeko sortuak direnak. (Facebook, Google +, Tuenti, MySpace...)

Gizarte sare horizontalak erabiltzaile bakoitzaren errepresentazio batean datza (normalean, bere profila) eta horrekin lotutako hainbat zerbitzu harremanak mantentzeko eta objektu sozialak elkarbanatzeko (posta elektronikoa, berehalako mezularitza, argazki galeriak, gertakariak, eta abar). Beste erabiltzaileak aurkitzeko aukera anitz ematen dira (loturen hedaduran baitago sare horren arrakastaren muina). Sarean aurkitutako beste erabiltzaile bat bere "lagun taldean" edo "zirkuloetan" gehitzeko erabiltzaile horren baimena beharrezkoa izaten da eta, behin gehituta, biek ikusi, iruzkindu eta gomendatu ahal izango dituzte bestearen profilean agertzen den informazio eta objektu sozial guztiak (beste erabiltzaileek jarritakoak barne). Taldeak edo komunitateak sortzea posible bada ere, gizarte sare hauek emandako zerbitzuak erabiltzailea hartzen dute epizentro gisa, eta honek beste erabiltzaileekin dituen loturak.

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

Nahiz eta gizarte sare horizontal asko egon gaur egungo web 2.0n, Euskal Herrian gehien erabilitako biak hartuko ditugu kontuan lan honetan: Facebook eta Tuenti. Edozein moduan, beste gizarte saretan (Google +, MySpace) ematen diren portaerek bi sare handi horietan ematen direnekin antzekotasun asko erakusten dute, guztien ezaugarriak (orohar) nahiko berdintsuak baitira. Horrez gain, gizarte sare horizontalen gehiengo ia absolutoa Facebooken zein Tuentin murgiltzen da gaur egun; MySpace ez du inoiz Euskal Herrian publiko handiegirik izan, eta gaur egun hiltzori larrian dago, ia desagertzeaz. Google +, bere aldetik, "Google ekosistema"-ren harribitxia bihurtu nahi du Mountain View-ko erraldoiak: bere aplikazio eta zerbitzu guztiek (Bilaketa-zerbitzuak, Android, Adwords/Adsense, Gmail, Blogger, Google Docs, Google Maps, eta abar luze bat) emandako datuen eta zerbitzu komunen laguntzarekin gizarte sare indartsu bat eraiki. Google + da Google-en aposturik handiena, baina momentuz sare gazteegia da, erabiltzaile gutxi dituena.

Facebook eta Tuenti: euskararen egoera egun

Gizarte sareetan euskararen egoerari hurbilketa bat egiteko, egindako bi ikerketa aztertuko ditugu. Lehen, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzaren enkarguz CodeSyntax eta Farapi enpresek garatutakoa, Facebooken, Tuentin eta Twitterren euskararen erabilera neurtzeko, 2010 urtean aurkeztu zena Udaltop jardunaldietan

(<http://www.udaltop.com/historikoa/2010/dokumentazioa/ponentziak/ikerketa-gizarte-sareak-euskara-20>). Bigarrena, Kultur Kabiak (Topaguneak sortutako enpresa) eta Soziolinguistika Klusterrak egindakoa (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzaren, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren eta Bilboko Udaleko Euskara Sailaren babesarekin), Tuenti sarean nerabeen euskara erabilera neurtzeko eta horren inguruan egindako interbentzioa aztertzeko eta 2011ko apirilean aurkeztuta (<http://www.soziolinguistika.org/eu/nerabeaksaresozialak>).

Lehenengo ikerketan, hurrengo teknika kualitatiboak erabili ziren: sakoneko elkarrizketa (14, aztertutako 3 gizarte sareak, adina, sexua eta hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuz), eztabaida-taldeak (4, gizarte sare bakoitzeko bat eta azkena euskalgintzako eragileekin) eta gizarte sarean jardunaren behaketak (14). Ikerketaren ondorioak hauexek izan ziren:

- Gizarte sare bakoitzeko erabiltzaileen profila dagokionez:

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

- Tuentin nerabeak dira nagusi (14-25 urte artekoak), Facebooken eta Twitterren adin altuagoko erabiltzaileak daude. Ez da sexuen arteko diferentzia handirik somatzen. Twitterreko erabiltzaileek profila teknofilo eta mediatikoagoa da (nahiz eta beste profil batzuetakoak egon ere, baldin eta bertan lagunak badituzten lehenik). Facebookeko erabiltzaileen profila orokorragoa da.
- Tuenti eta Facebook sozializatorako helburuarekin erabiltzen dira. Nabaritzen da Tuentin ebentoak antolatzeko funtzionalitateak hartu duen garrantzia, eta Facebookeko informazio-estekak partekatzea. Twitter informazio iturri fresko eta azkarra eskuratzeko erabiltzen da gehienbat.
- Euskararen erabilpenari dagokionez:
 - Euskararen erabilera mundu fisikoan ematen denaren isla da, ez da bereizketa handirik somatu bi ingurune arteko erabileraren artean. Izan ere, ez da ikusten ingurune gizarte sareak euskaldunen muga eta isolamendu fisikoa gainditzeko ematen duen aukeraren eraginik: euskaraz bizi ez direnek ez dute, Tuentin adibidez, euskara erabiltzen eta, adibidez, jasotako gertaeren %88 gaztelaniaz da.
 - Komunikatzeko hizkuntza audientziaren arabera egiten da, eta audientzia horren baitan erdaldun elebakar ugari dagoenez, gaztelania erabiltzeko joera dago ia beti. Hala ere, kasu batzuetan elkarbanatzen den "objektu soziala" audientziaren azpi-talde bati zuzentzen bazaio azpi-talde horretan nagusi den hizkuntza erabiliko da (euskara edo beste hizkuntza bat). Tuentin, adibidez, ikusi da bi erabiltzaileen arteko elkarriketetan euskararen erabilera altuagoa dela komunikazio masiboetan baino.
 - Gaztelania freskotasunarekin eta informaltasunarekin lotzen da. Euskara, aldiz, komunikazio formala eta intenzionatuarekin.
 - Euskara gaizki erabiltzeko beldurra eta lotsa dago, gaztelaniarekin gertatzen ez dena. Beldur/lotsa hori handiagoa da euskalduntzeko prozesuan daudenen artean. Kode-nahasketa ugari ematen dira, normalean euskararen kalterako (euskara, askotan, esamolde edo espresio jakin batzuekin erabiltzen da soilik –zorionak, musus, agur-, askotan hurbiltasuna adieratena eta keinu identitario gisa.


Bigarren ikerketan, Kultur Kabiak kudeatzen duen "Harrapazank" nerabeetan (12-18 urte bitartekoak) euskararen erabilera sustatzeko programan oinarritu zen. Bilbon

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak


“Harrapazank” nerabeen artean euskararekiko motibazioa eta erabilera bultzatzeko aisialdi programan dauden nerabeak hartuta, hauen Tuentiko jardunaren azterketa egitea era honen inguruan esku hartzea zen helburua. Kontuan hartu behar da, beraz, ikerketaren nerabe guztiak “euskaldunak” zirela (hobe esanda, euskarazko hezkuntza-eredukoak) eta Bilbo ingurukoak (ingurune guztiz erdaldun batekoa)

Ikerketa eta esku-hartzea aurrera eramateko, Tuentiko bi profil erabili ziren: lehena, programaren profil ofiziala, non programaren nondik norakoak argitaratzen ziren, hizkera formala eta zaindua erabiliz; bigarrena, “zirikatzaile” profila, hau da: 20-25 urteko gaztea (nerabeengan eragina gehiago sortzeko), programarekiko autonomia erakutsi behar zuena (baina harekiko lotura eskutatu gabe) eta bere zaletasun pertsonalak eta izaera freskoa eta informala erakutsiko zuena (nolabaiteko konplizitatea sortzeko nerabeekin).

Hauexek izan ziren esku hartzea egin baino lehen eta egin ondoren nerabeen profiletan lortutako emaitzak:



Esku hartzea egin baino lehen jasotako datuak: hizkuntzen erabilpean (goiko partean) eta hizkuntza guztietan erabilitako komunikazio-motak (behekoan)



Esku hartzea egin ondoren jasotako datuak: hizkuntzen erabilpean (goiko partean) eta hizkuntza guztietan erabilitako komunikazio-motak (behekoan)

Bigarren ikerketa honek lehenak emandako emaitzak berretzen ditu, orokorrean:

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

- Tuenti gizarte sarearen erabiltzaileen portaera orokorrari dagokionez:
 - Egoera, argazkien iruzkinak eta horma esparruak dira hizkuntza-erabileraren esparru nagusiak Tuentin.
 - Tuentiko nerabeek “maite zaitut” esan eta muxuak bidaltzen dizkiote elkarri, etengabe. Mota honetako mezuen kopuruak mezu guztien proportzio esanguratsua osatzen du. Jendea iraindu edo jendeaz barre egiteko ere erabiltzen da sare sozial hau. Horrez gain, denborak aurrera egin ahala lagunak gehitzen joatea joera orokor bat behatu da; apika Harrapazanken parte hartzeak nerabeen harreman sarea sortu eta handitzearen eragina izan liteke.
- Euskararen erabilpenari gagokionez:
 - Gaztelania erabiltzeko joera garbia dago
 - Gaztelania darabiltenean, hizkera informala eta arauetatik kanpokoa da nagusi.
 - Euskara erabiltzen den kasuetan, berriz, euskara batua eta ahalik eta zuzenena erabiltzen dute. Ez da euskalkien erabilerarik ikusi Harrapazank programaren profilarekin eta zirikatzailearen profilarekin izandako harremanak euskaraz izan dira. Inoiz esplizituki aipatu gabe, zirikatzaileak lortu du berekiko harremanetako hizkuntzatzat euskara finkatzea eta nerabeek berarekin duten praktika baldintzatzea. Kasu hauetan, nerabeek ez dute inolako komunikazio arazorik izan, hizkuntza-gaitasunari dagokionez.
 - Akats ortografiko ugari sumatu dira euskaraz idaztean.
 - Euskara komunikazio formalarekin lotzen da, eta gaztelania freskotasun eta informaltasunarekin, lagun artean erabiltzeko aproposa. Ez da euskarazko laburdurarik edo esamolde berririk sumatu, bat izan ezik: “skerrick” erabiltzea eskerrak emateko
 - Kode nahasketa ugari ikusi da, ingelesezko esamoldeak ere
 - Zirikatzailea bereizten saiatu den arren, programarekin zuzenean lotutako pertsona dela ulertu dute nerabeek. Hori ondoriozta daiteke berekiko izan duten hizkuntza-praktikatik. Programaren kasuan gertatzen den bezala, zirikatzailearekin harremanean beti euskara erabili dute, euren artean normalean erabiltzen ez dutena. Gainera, nahiz eta zirikatzaileak nerabeekin harreman informalagoa lortu, egindako galderei edo iruzkinei nerabeek emandako erantzunak ez dira izan naturalak, egoerak behartutakoak izan direla dirudi, zirikatzailearen

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

hizkuntza-ohiturek baldintzatutakoak. Gainera, nerabe batzuk kexu agertu dira zirikatzaileak sortutako gehiegizko interakzioagatik.

Bukatzeko, aipatu behar da “Harrapank” programako nerabeekin aritu baino lehen, Kultur Kabia proba pilotuak egin zituela Getxo, Txorierrri, Uribe-Kosta eta Durangaldean garatzen duen “Izarren disdira” programaren baitan dauden nerabeekin, euren Tuentiko jarduna behatuz. Emaitzak oso antzekoak izan ziren, hau da: informazioa zabaldu eta elkartrukatzekeo garaian gaztelaniaren nagusitasun osoa eta euskaren erabilera programaren edo zirikatzaileen presentziarekin lotura. Salbuespen bakarra Durangaldeko nerabeekin eman zen, hauen artean gaztelaniaren nagusitasuna ez baitzen hain nabarmena (aztertutako eskualdeen artean euskaldunena izatearen nabarmena, dudarik gabe).

Ondorioak

Ikerketa hauetatik atera ditzakegun ondorioak ez dira, inondik inora, harritzekoak. Kontuan hartu behar dugu euskararen erabileran bi faktore nagusi eragiten dutela: euskara-gaitasun erlatiboa eta hiztunaren inguruan dagoen euskaldunen dentsitatea. Hori aplikatzen da bai mundu fisikoan zein interneteko gizarte sareetan. Topaguneak egindako ikerketaren subjektuak Bilbo ingurukoak izanik, garbi dago bi faktore horien egoera: Alde batetik, Bilboko ingurunea guztiz erdalduna da, euskararen presentzia anekdotikoa izanik bizitzaren hainbat eta hainbat funtzioetan. Horri gehitu behar diogu nerabeeek familia-giroa guztiz erdalduna daukatela. Aisialdia, telebista, zinema, musika, kale-giroa, kirola, erreferente mediatikoak...dena da gaztelaniaz beraiantzat. Euskararekin duten kontaktu bakarra eskolakoa da. Normala da, beraz, euskara-gaitasun gutxi izatea (hortik datoz, ziuraski, azken urteotan B eta D eredueta ikasitakoek erakutsitako euskara maila eskasa), ingurune sozial erdaldun elebakarrak erabilera mugatzen baitu (“arraroa” egiten zaie euskara entzutea edo erabiltzea eskolatik kanpo). Erabilera mugatzen da, eta horrekin hitz egiteko gaitasuna. Gaitasun falta horrek erabilera mugatzen du. Eta gurpil zoroa aurrera doa. Hortik ere nahiko argi ondoriozta dezakegu zergatik lotzen duten euskara jarduera “formalekin”, ez baitute ia inoiz euskarazko jarduera “ez-formalik” ezagutu, beraiantzat euskara “eskolako” edo “ikasteko” hizkuntza bihurtuz.

Herri edo eskualden euskaldunagoetan, gaitasun-maila (benetazkoa, hau da, eguneroko erabilerak ematen duena eta euskara normaltasunez eta esfortzurik gabe hitz egitea ahalbidetzen duena) eta ingurunearen euskaldun-dentsitatea altuagoa izango da kasu gehienetan. Ondorioztatu dezakegu, beraz, euskararen erabilera

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

handiagoa dela gizarte sareetan. Eta horrela da (hor dugu, adibidez, Durangaldeko emaitza Topaguneko ikerketaren proba pilotuetan), baina ez pentsa genezakeen bezala. Azken finean, gizarte sareetan pisu asko dute "lotura arinak", hau da, balizko ingurune euskaldun horren kanpoko harremanak. Ez dira, normalean, gizarte sare horietan ezagututako pertsonak izango (ezohikoa da pertsona berriak ezagutzea tresna hauen bidez, nahiz eta sare hauetatik kanpo dauden askok hori pentsatu), baina bai mundu fisikoan egindako harreman "arinak" edo distantzia fisiko handian mantentzen direnak (adibidez, Beasaingo gazte batek Donostian edo Iruñean egindako "ezagunak"). Zaila bada mundu fisikoan gune euskaldun elebakarrak aurkitzea, askoz zailagoa bihurtzen da gizarte sareetan horrelako "lagun taldeak" topatzea. Eta euskaldunak, berdin ingurune euskalduna edo erdalduna izan, elkarbanatzeko eta gizarte sare horretan harremanak mantentzeko hizkuntza audientzaren arabera moldatuko du (batez ere euskararekiko kontzientzia gutxi duten nerabeen artean). Joera, beraz, gaztelaniaren aldekoa izan daiteke, kasu gehienetan.

Ez dugu guztiz ezkorrak izan behar gizarte sareen analisisian. Egia da gizarte sare digital batek aukera ederra ematen diola eremu erdaldun batean bizi den euskaldunari, gizarte sareak ahalbidetzen baitu muga "fisiko" horiek gainditzea. Horrez gain, gehienbat jardun idatzia denez, euskalduntze prozesuan daudenek (edo, erabilera eskasagatik ahozko jardun ahula duetenek) aukera ederra dezakete euren euskara erabiltzeko eta trebatzeko, idatzizko jarduna izaten baita errazena euskara ikasten ari direnentzat. Baina edozein aukerak arriskua dakar, eta ingurune fisikoaren gainditze hori beste zentzu batean izan liteke: eremu euskaldunetan bizi direnen euskaldunen (bere harreman "sendo" gehienak euskaraz garatzen dutenen) harreman-sarean gaztelania txertatzea eta nagusitzea, euskararen kalterako. Luistxo Fernandezek dioen bezala:

"Neure aburuz, erreal / birtual esparruan birtualtasunak eraginik badu, euskararen okerrerako da gehienbat. Sare eleanitzetan daude euskaldunak, audientzia anitzekin: hizkuntza zabalduagoetara jotzeko joera indartzen da. Bere herria euskalduna izan arren, sare bidez esparru hori zabaldu egiten du (adinean aurrera eginez ere), eta kalean euskaraz egiteko aukerak baditu, gehiago izango ditu sarean erdaraz egitekoak. Ingurune erdaldunagoan bizi den euskalduna, aldiz, teorikoki pertsonalki beste euskaldun batzuekin kontaktuan egoteko aukerarik badu. Baina bere gogoaz ez bada monotematikoa (euskararen militantea 24 orduetan), bere sare eleanitza izango da, besteena bezala, erdarara jotzeko aukera beti presente horrekin parte hartuko du sarean. Konexio pertsonalak euskaraz egin arren, inguruan eragitea zaila, Sareko Sestaok duen itxura linguistikoa nekez aldatuko du Sestaoko

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

euskaldunek sarean egoteak. Aldiz, Sareko Elgetan erdarak infiltratzeko aukera guztiak dauzka"

(LUISTXO FERNANDEZ, (2010) "SARE SOZIALAK ETA EUSKARA, AZALEKO ERRADIOGRAFIA BAT", UDALTOP. [HTTP://WWW.UDALTOP.COM/FITXATEGIAK/DOKUMENTUAK/DOKUMENTAZIOA/SARE-SOZIALAK-NERABEAK-ETA-EUSKARALUISTXO_FERNANDEZ.PDF](http://www.udaltop.com/fitxategiak/dokumentuak/dokumentazioa/sare-sozialak-nerabeak-eta-euskaraluitxo_fernandez.pdf))

Beste aldagai garrantzitsua izan behar dugu kontuan: objektu sozialarena. Objektu soziala gizarte sareetan elkarbanatzen diren unitateak dira: estekak, iruzkinak, argazkiak, bideoak, egoerak, ebentoak, eta abar. Komunikazioaren muina dira, bere oinarriko elementua. Askok erabiltzaileek beraiek sortutakoak dira: argazkiak, egoerak, sortutako ebentoak, eta haiei buruz egindako iruzkin guztiak. Horietan erabiltzaileak erabakiko du zein hizkuntza erabili, ikusi dugun baldintzekin. Baina zer gertatzen da hirugarren batek sortutako objektu sozialaren bat erabiltzen denean? Batez ere hain erabiliak diren elementu multimedialak (bideo-klipak, filma bateko trailerra, telebistatik hartutako azken bitxikeria, umorezko saioak, hedabideetatik datozen edukiak, eta abar) erabiltzean? Euskarak pairatzen duen gaitzetako batekin egingo dugula topo: erreferente falta nabarmena. "Mainstream"-ean mugitzen den kontsumorako produktu kultural gehienak erdaraz daude, batzuetan gaztelaniaz, bestetan ingelesez. Batez ere nerabeen artean kontsumitzen den produktu kulturalak. Zein hizkuntzan jasotzen dute gustuko dituzten produktuak (zinema, telesailak, musika, umorea, moda, kirola, txutxu-mutxuak, eta abar)? Erdaraz, ia beti. Egia da euskal kulturak aurrera egin duela multimediararen arloan eta produktu kulturalak sortzean, baina erdarazkoak nagusi dira. Horrela da eta horrela izan da aspalditik, baina horren eragina indartsuagoa izan daiteke gizarte sareek sortzen duten produktu hauen etengabeko elkarbanatze gogorragatik. Jakina, erabiltzaile batek egindako argazkiak eta horren inguruan euren lagunek egindako iruzkinek, txantxek edo irainek pisu askoz handiagoa izango dute sarearen elkarrekintzan La Oreja de Van Gogh azken bideoklipa edo espainiako 15Mk zabalduetako bideoa baino, baina ezin dugu aldagai hori inolaz baztertu. Euskarazko kultur produktu errefentzialak, modernoak eta erakargarriak sortu behar dira, erabiltzaileak (nerabeak eta gazteak batez ere) jabetu daitezela euskarak merezi duela, ez soilik "gurea delako", edo "hiltzen utzi ezin dugulako"; dibertigarria, modernoa eta aprobetxagarria ere delako.

Bukatzeko, gizarte sare "orokor" hauen izaera zentralizatua kontuan hartu behar dugu, sare baten tipologia sarearen aukerak ezartzen dituelako, arestian aipatu dugun moduan. Egia da, eguneroko erabileran, Facebookek edo Tuenti (baita Twitterrek,

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

Google +-ek, eta abarrekoek) sare banatu baten itxura izan dezaketela: hainbat nodo elkarren artean zuzenean erlazionatuta, nodo zentralik gabe edo kluster indartsu komunik gabe. Errealitatea, ordea, beste modukoa da. Biak dira, funtsean, sare zentralizatuak. Teknologikoki zentralizazio zorrotza erakusten dute, eta erdigunean dagoen nodoekiko (hots, Facebook edo Tuenti bera) dependentzia erabatekoa da. Egituraren aldetik, zentralizaziorako joera nabarmena da ere, Manuel Ortegak "Las huellas de la recentralización" (<http://manuel.lasindias.com/la-huellas-de-las-recentralizacion/>) artikuluan aipatu zuen legez:

"Encuentro hechos interesantes en la respuesta a esta pregunta ¿Quién crea los contenidos?. En la respuesta a esta pregunta podría estar la clave de la diferencia entre las primeras dos gráficas y las dos últimas. El Euskera y el Esperanto dependen más de particulares y pequeñas comunidades que armados con un blogs o su propia web inundan la red de nuevos contenidos. "Por al contrario idiomas como el Español y el Inglés cuentan con la existencia de muchos nodos pertenecientes al mundopuzzle, es decir, al mundo de las redes descentralizadas. Me refiero a periódicos, agencias de noticias y otras herramientas en las que a particulares solo les queda la vía de la participación. Las herramientas del modelo FbT tienen como objetivo los particulares y en cierta forma la adopción de herramientas del modelo FbT equivale al desarme y sometimiento a la cultura de la adhesión y la participación. Y esto claramente tienes sus efectos en los contenidos de esas lenguas que ven a muchos de sus usuarios desarmados y sometidos al me gusta/no me gusta y a los 140 caracteres. He aquí porqué la popularización del modelo FbT, es decir, la recentralización de la web, tiene un mayor impacto en lenguas cuyos contenidos dependen más de particulares." (...) "En resumen, el modelo FbT (socialización sobre Facebook + twitter) equivale al desarme y a la renuncia de la capacidad propositiva, en otras palabras: recentralización o paso de una estructura distribuida a otra centralizada o descentralizada. Esto tiene un mayor impacto en los contenidos de los idiomas con menos nodos en el mundo descentralizado y por supuesto en el nacimiento de comunidades conversacionales que dependen de la interacción para su gestación." (MANUEL ORTEGA, "LAS HUELLAS DE LA RECENTRALIZACIÓN" [HTTP://MANUEL.LASINDIAS.COM/LA-HUELLAS-DE-LAS-RECENTRALIZACION](http://manuel.lasindias.com/LA-HUELLAS-DE-LAS-RECENTRALIZACION))

Gizarte sare "orokorrak" (eta Twiter neurri batean), beraz, informazioa helarazteko edo atxikimendu soilerako aproposak dira. Baina euskarak komunitate txikiagoak behar ditu, "konpromisoaren piramidean" beharrezkoak dituen maila altuetara heltzeko eta askotan aipatzen den "konpaktazioa" lortzeko. Euskaraz egingo duten eta edukiak euskaraz sortuko dituzten komunitateak txikiak izango dira gehienetan, sare erraldoietan euskaraz jarduteko aukerak askoz txikiagoak direnez, ingurune horietan

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

munduko hizkuntza "estandarrek" erabiltzeko joera nagusitzeko arrisku larria dagoelako. Euskarak sare banatu txikien indarrak baliatu behar, ekosistema banatu (baina, era berean, estandar irekiei esker elkarren artean interkonektatu) baten ezaugarriak askoz aproposagoak baitira euskara bezalako hiztun-komunitate txikiak. Komunitate eta sare banatu horiek konpromisoa eta partehartzea sustatzen dute, eta hori berebizikoa da euskal hiztunentzat, euskarak behar dituelako norbanakoek eta komunitateek sortutako edukiak, gizarte sare handien nodo zentraletan dauden eduki-sortzaile handiekiko dependentzia mozteko (edo minimizatzeko, bederen).

Horrek guztiak ez du zertan esan gizarte sare "orokorrak" utzi behar direla, edo gutxietsi. Inondik inora. Publiko gehiena hor dago, gazteak eta nerabeak batez ere eta, gaur egun, nahiz eta euskal komunitateak eta konpromisoa garatzeko oso baliagarriak ez izan, komunikatzeko eta atxikimendua lortzeko zeharo baliagarriak dira, ahalbidetzen duten lotura arinen ugaltzeari eta kudeaketari esker. Horretaz baliatu behar dugu euskararen normalizaziaren aldeko mezua helarazteko, kontzientziak pizteko eta euskararekiko atxikimendua erakusten duten erabiltzaileak aurkitzeko; euskal komunitate trinkoak sortu ditzaten (edo daudenetara hurbil daitezten) euskarazko elkarrizketak, elkarrekintzak eta, garrantzitsuena, euskarazko edukiak sor ditzaten.

Edukiak eta komunikazioa

Edukien garrantzia

Sare sozialen egiturak, interfaseak, erlazio motak, hedatze kanalak eta abar azter ditzakegu euskararentzat ahalik eta baldintza hoberen lortze aldera. Baina hori guztia hutsala izango da ez badugu sarea euskarazko edukiez hornitzen. Euskarazko kalitatezko edukiak, erakargarriak, dibertigarriak, praktikoak. Ikusi dugun bezala, sare sozialetan harremanak eta interakzioak "objektu sozialaren" inguruan egiten dira, eta objektu sozial horiek edukiak dira (argazkiak, bideoak, iruzkinak, ebentoak, artikulak, eta abar). John Ford zinema zuzendariari galdetun ziotenean zein zen filma on bat egiteko hiru gakoak berak erantzun zuen "gidoia, gidoia eta gidoia". Guk argi behar daukagu, era berean, EDUKIAK direla gakoa.

"Hiztun berriak lortu behar ditugu eta euskarazko zerbitzu eta produktuen merkatua zabaldu, alegia, ikusle, irakurle eta entzule berriak lortu. Abangoardiako

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

produktuak behar baditugu ere, alegia, iparra markatuko duten liburuak edo filmak... batez ere jendeak "masiboki" kontsumituko dituen produktuak behar ditugu. Marketing hausnarketa eta merkatu-ikerketak ezinbestekoak dira xede horretara heltzeko" ([KIKE AMONARRIZ: "XXI. MENDE HASIERARAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK"](#), [TXOSTENARI EKARPENAK, 39. ORRI.](#))

Gaur egungo eduki ekoizle handienak bi multzotan sailka dezakegu. Alde batetik, partikularrak, norbanakoak zein komunitateak. Bestetik, eduki ekoizle handiek (hedabideak, kasu). Euskararen kasuan, lehenengo taldea da garrantzitsuenak, euskara bezalako hizkuntza txiki eta gutxitu batek nekez izango ditu munduko hizkuntz "nagusiek" dituzten eduki-ekoizle erraldoiak. Norbanako euskaldunek (komunitateek, batez ere) sortutako edukiek gertutasunaren balio erantsia daukate, euskal ikuspuntu batetik mundua ulertzeko era bat planteatu dezakete. Hau da, pertsonengan eragin handia sor dezakete. Arlo honetan jarri behar da arreta nagusia. Eduki interesgarriak eta freskoak sortu behar ditugu, baina ezin diogu Berriari edo EITBri itxaron. Euskal hedabideek (edo eduki-ekoizle nagusiek) ez dute inoiz izango euskal komunitate egituratu eta konziente batek izan dezakeen sormen eta ekoizmen indarra. Jakina, euskal hedabideekin elkarlana sustatu beharko da, arlo batzuetan hauek eskaintzen dituzten baliabide tekniko zein ekonomikoak beharrezkoa izango direlako. Baina sormena komunitatetik etorriko da. Hori guztia lelo famatu batekin laburtu dezakegu: "Don't hate the media, BE THE MEDIA". Hau da, ez kexatu euskal hedabideek ez badituzte behar ditugun edukia sortzen. ZUK ZEUK SORTU. Ez dagoela modari edo surf-ari buruzko edukirik euskaraz? Sor ezazu blog bat honi buruz, ezagutarazi twitter eta facebooken, saiatu sare hauek erabiltzen gai horren inguruan interesa duten beste euskaldun batzuk topatzen eta komunitatea sortzen gero eta eduki hobek eta interesgarriagoak sortzeko. "Cosmopolitan" eta "Todosurf" beti izango dira hor, jakina, inoiz izango dituzun baliabideekin, baina zure komunitateak lortuko duen balio erantsia ez dute sekulan lortuko. (euskararentzat komunikazio kanal gisa zein zure edukiarentzat, gertutasunagatik eta euskarak emago dion balio erantsiagatik).

Zein ezaugarriak dira garrantzitsuenak edukientzat?

- Sinpletasuna: Gizarte sareetan informazio jariora etengabea da, inork ez du denbora handirik emango eduki bat ulertzeko. Erraz ulertu behar da, sinplea izan behar da.
- Parte hartzea: Parte hartzea sustatzen bada erraztasun handiagorekin elkarbanatuko da. Horren adibide #euskalporn (agian euskaraz sortu den Trending Topic bakarra) edo #hitzokei izan litezke.

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

- Umorea / Sorpresa: Berebizikoa konplizitatea sortzeko eta elkarbanatzea indartzeko.
- Naturaltasuna: Erakutsi behar da edozein eduki euskaraz izan daitekeela naturaltasun guztiarekin. Zergatik ez "tunning" buruzko artikulua edo bideoak euskaraz?
- Estetika: Estetika modernoa eta erakargarria luzatu behar dute..
- Testuingurura moldatzea: Eduki bat ez da berdin kontsumitzen ordenagailu batean edo mugikor batean, erabiltzeko baldintzak guztiz desberdinak direlako. Modu berean, gauza bere gertatzen da, adibidez, Twitterren: Zentzurik al dauka RSS jariora balitz erabiltzea? Ez al litzateke askoz emankorragoa izango, demagun hedabide euskaldun batentzat, katezariak zuzenean jartzea albisteak komentatzen edo luzatzen, atzean pertsonak daudela erakutsiz? Edukia eta mezua testuingurura moldatu behar da, bestela ez da eraginkorra izango. Honekin lotura, gailu mugikorrei arreta berezia eman behar diegu, haien ugaltzea ez baita hasi baino besterik egin.

Bukatzeko, edukiak sortu behar dira, ezagutarazi behar dira, baina elkarbanatu behar dira ahalik eta hedadura zabalen lor ditzaten. Eta horretarako, jabetza intelektuala kudeatzeko modu irekiak eta askeak sustatu beharrean gaude. Horretarako, lizentzia askeak (Creative Commons, esate baterako) erabiltzea

Komunikazio estrategia egokiak hautatu

Euskara aldarrikatu behar dugu, bai. Gure eskubideak hiztun gisa ere, nola ez. Baina nahikotxo eduki eta kanpaina ditugu aldarrikatzeko, kexatzeko, euskararen egoera salatzen. Gehiegi. Ez dut esan nahi lan hori beharrezkoa ez denik. Baina ematen du euskararen inguruak soilik aldarrikapenetan eta salaketatan mugitzen dela. Ez ote dugu, askotan "euskaldun gixajo sufrituaren" irudia, nahi gabe, saltzen? Nor hurbilduko da euskararen mundura horrelako mezu negatiboekin? Euskaraz disfrutatzen, gozatzen, salseatzen, maitatzen, jolasten dela erakutsi behar dugu. Mezu positiboak zabaldu, askoz erraztasun handiagorekin garraiatzen direlako eta elkarbanatzeko egokiagoak direlako.

Era berean, ez dugu euskarak duen balio nagusietako bat alboratu behar: geurea dela. Ez dago euskaldunagoa den gauzarik euskara baino. Horrek balio handia eman diezaioke gure komunikazio estrategiari, globalizazioak ekartzen ari den nortasun galera prozesuaren aurrean bertokoa eta gurea balio handiagoa har baitezake. Jakina,

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

tentuz hautatu behar da horrelako mezuak non eta batez ere nori bidali, bilatzen dugun kontrako efektua sor ez dadin. Ezin dugu ahaztu gizarte sare batean jardutean erabiltzaileak bere buruaren proiektio bat erakusten ari dela bere sareko kideen aurrean. Hau da, erabiltzaileak bere profilean (edo beste profiletan edo objektu sozialetan) argitaratzen duena izango dela erabiltzaileak bere burua munduaren aurrean definitzeko eta aurkezteko modu bat. Ez litzateke interesgarria izango euskararen aldeko mezuak zabaltzea, euskarari balio erantsia emanez, politikatik edo aldarrikapen hutsetatik kanpo? Eduki interesgarriekin lotuta, mezua ez litzateke askoz hobeto zabalduko? Ikusi dugu euskarazko esamoldeak, agurrak eta abar zentzu identitario batekin erabiltzen direla askotan gaztelaniazko jarioetan. Zergatik ez hori erabili? Mezu moderno eta positibo batean lotzen baditugu, ez litzateke askoz erakargarriagoa izango nolabaiteko efektu "birala" lortzeko? Jende askok ez du nahi izango bere burua "Euskaraz eta kitto!" edo "Hizkuntza inposaketarik ez!" leloekin identifikatzea bere burua. Baina agian bai Nafarroako euskalgintzak "Euskaraz bizi nahi dut" kanpaina sustatzeko egin zuen bideoarekin, non gazte batzuk besarkadak banatzen zituzten Iruñeko kaleetan mezu hau zabaltzeko, edo Twitter euskararako itzultzearen aldeko "Maite zaitugu, maita gaitzazu zuk ere" (mezu positiboa, maitasun kontzeptuarekin lotuta, askoz hobea "Twitter euskararen kontra" moduko leloak baino).

Bukatzeko, zeharo garrantzitsua dugu gizartearen pertsona erreferentzial euskaldun bilatzea eta gizarte sareetara ekartzea. Horren harira aipatzekoa da Luistxo Fernandezek (Sustatuko kudeatzaileak) egindako "Mila euskal intelektual Twitterrera" egitasmoa. Erreferentziak bilatu behar ditugu sarean euskaraz jardun dezaten, eta ez bakarrik intelektualak: kirolariak, sukaldariak, telebistakoak, eta abar. Horrelako ekimenek lortu lezakete ez soilik euskaldunei irudi positiboa eta modernoa eman, baizik eta erdaldun (eta, garrantzitsuena, elebidun pasibo asko) euskarara hurbiltzea, euskararekiko interesa eta jakin mina piztea. Euskara galtzean zerbait benetan emankorra eta interesgarria galtzen ari direla kontura daitezela, eta gugana etortzeko konbitea zabalduz.

Ondorio nagusiak

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

- Web 1.0ren garapena da Web 2.0, eta bere ezaugarri nagusia da informazioaren transmisioa aldebakarrekoa izatetik aldeaniztuna izatera pasatu dela. Horrez gain, Web 2.0n erabiltzaileen edukiez hornitutako komunitateak eta sareak ugaltzea. Horrek ekarri du euskarak gizartean dituen aldagai batzuk (diglosia egoera, izaera gutxitua, euskaldunen tipologia berriak) interneten indar handiagoa hartzea.
- Sare baten tipologia baldintzatzen ditu bertako jarduerak eta aukerak. Interneko gizarte sareetan, sare banatuak edo, behintzat, deszentralizatuak (blogosfera, esate baterako) dira euskararentzako egokienak: konpromiso maila altuagoak bermatzen dituzte, komunitate euskaldun konpaktatuak sor ditzakete, eta sare zentralizatu eta handietan eman daitekeen diglosia egoera gainditu.
- Sare zentralizatu handiek (Facebook, Tuenti) lotura arinen kudeaketa eta ugaltzea ahalbidetzen dute. Horri esker, informazioa modu oso eraginkorrean garraiatu daiteke, aukera zeharo baliagarria euskal komunitateak sortutako edukiak eta euskararen aldeko diskurtsoa zabaltzeko.
- Testuinguru teknologikoa (sistema eragileak, nabigatzaileak, zerbitzu handien interfaseak) euskaraz egotea garrantzia dauka ohituretan eta aldagai psikologikoetan. Ekimen zehatzak hartu behar dira hori lortzeko. Atal honetan, software libreak aukera eta abantaila asko eskaintzen ditu, baina bere zabalera gizartean txikiegia da gaur egun energia guztiak bertan jartzeko.
- Blogosfera euskaldun osasuntsua eta emankorra dugu. Blogak eta blogosfera dira euskal komunitate konpaktatuak eratzeko biderik aproposa.
- Twitter informazioa modu azkarrean elkarbanatzeko kanalik aproposena da. Berez kaotikoa eta zentralizatu bada ere, bere ezaugarri batzuek aukerak sor lezakete euskal komunitateak eta edukiak sortzeko eta ezagutarazteko.
- Facebook eta Tuenti (azken hau nerabeen kasuan, batez ere) dira gaur egun gizarte sareen erreferenteak. Sare hauen inguruan egindako ikerketatan ondorioztatzen da erabiltzaileek mundu fisikoan dituzten hizkuntza ohiturak eremu digitaletan islatzen direla. Diglosia tasa handia ematen da, eta gaztelania da nagusi. Nolanahi ere, bertan jardutea berebizikoa da euskararentzat, erabiltzaile multzo gehiena han baitago, eta euskararen aldeko mezuak zabaltzeko aukera oparoak eskaintzen dituelako. Edukietan eta diskurtso egokietan oinarrituz, euskara baliagarria eta erakargarria eginez.

Bibliografia

[DINUCCI, D. \(1999\). FRAGMENTED FUTURE \(HTTP://DARCYD.COM/FRAGMENTED_FUTURE.PDF\)](http://darcy.com/fragmented_future.pdf)

[LANNIGHAM, SCOTT \(2006\). DEVELOPERNETWORKS INTERVIEW WITH TIM BERNERS-LEE. \(HTTP://WWW.IBM.COM/DEVELOPERWORKS/PODCAST/DWI/CM-INT082206TXT.HTML\)](http://www.ibm.com/developerworks/podcast/dwi/cm-int082206txt.html)

[BARABÁSI, A. \(2002\). LINKED, THE NEW SCIENCE OF NETWORKS. PERSEUS BOOKS](#)

[DAVID CRYSTAL, "HIZKUNTZA, HIZKUNTZAK ETA INTERNET" HTTP://WWW.EUSKARA.EUSKADI.NET/R59-BPEDUKI/EU/CONTENIDOS/INFORMACION/ARTIK25_1_CRYSTAL_08_06/EU_CRYSTAL/ADJUNTOS/DAVID-CRYSTAL.PDF](http://www.euskara.euskadi.net/r59-bpeduki/eu/contenidos/informacion/artik25_1_crystal_08_06/eu_crystal/adjuntos/david-crystal.pdf)

[DAVID DE UGARTE, "BREVE HISTORIA DEL ANÁLISIS DE REDES SOCIALES" HTTP://DAVID.LASINDIAS.COM/GOMI/HISTORIA DEL ANALISIS DE REDES SOCIALES.PDF](http://david.lasindias.com/gomi/historia_del_analisis_de_redes_sociales.pdf)

[MARK GRANOVETTER, THE STRENGTH OF WEAK TIES HTTP://WWW.STANFORD.EDU/DEPT/SOC/PEOPLE/MGRANOVETTER/DOCUMENTS/GRANSTRENGTHWEAK TIES.PDF](http://www.stanford.edu/dept/soc/people/mgranovetter/documents/granstrengthweakties.pdf)

[EYTAN BAKSHY, "RETHINKING INFORMATION DIVERSITY IN NETWORKS", HTTP://WWW.FACEBOOK.COM/NOTES/FACEBOOK-DATA-TEAM/RETHINKING-INFORMATION-DIVERSITY-IN-NETWORKS/10150503499618859](http://www.facebook.com/notes/facebook-data-team/rethinking-information-diversity-in-networks/10150503499618859)

[LANDER ARBELAITZ, "TWITTER EUSKARAZ DUGU, ETA ORAIN ZER?" ARGIA.COM HTTP://ARGIA.COM/ERREDAKZIO-MAHAIA/LANDER-ARBELAITZ/2012/05/18/TWITTER-EUSKARAZ-IZANGO-DUGU-ETA-ORAIN-ZER/\)](http://argia.com/erredakzio-mahaia/lander-arbelaitz/2012/05/18/twitter-euskaraz-izango-dugu-eta-orain-zer/)

[PAUL BOUTINE, "KILL YOUR BLOG". WIRED MAGAZINE HTTP://WWW.WIRED.COM/ENTERTAINMENT/THEWEB/MAGAZINE/16-11/ST_ESSAY](http://www.wired.com/entertainment/theweb/magazine/16-11/st_essay)

[DAVID DE UGARTE, "LA PIRÁMIDE DEL COMPROMISO". HTTP://BITACORA.LASINDIAS.COM/LA-PIRAMIDE-DEL-COMPROMISO](http://bitacora.lasindias.com/la-piramide-del-compromiso)

[LUISTXO FERNANDEZ, "TWITTER ONTSA EUSKARATZEKO BIDEAN" HTTP://EIBAR.ORG/BLOGAK/LUISTXO/TWITTER-ONTSA-EUSKARATZEKO-BIDEA](http://eibar.org/blogak/luistxo/twitter-ontsa-euskaratzeko-bidean)

[KEVIN SCANELL, "HOW MANY LANGUAGES ARE OUT THERE?" HTTP://INDIGENOUSTWEETS.BLOGSPOT.COM.ES/2011/03/HOW-MANY-LANGUAGES-ARE-OUT-THERE.HTML](http://indigenoustweets.blogspot.com.es/2011/03/how-many-languages-are-out-there.html)

Bipuntuzero: Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak

[JON AIZPURUA, \(2010\) "GIZARTE SAREAK + EUSKARA 2.0".](#)

[HTTP://WWW.UDALTOP.COM/FITXATEGIAK/DOKUMENTUAK/DOKUMENTAZIOA/GIZARTE-SAREA-ETA-EUSKARA-20.PDF](http://www.udaltop.com/fitxategiak/dokumentuak/dokumentazioa/gizarte-sarea-eta-euskara-20.pdf)

[KULTUR KABIAK, TOPAGUNEA ETA SOZIOINGUISTIKA KLUSTERRA, \(2011\) "NERABEAK, GIZARTE SAREAK ETA EUSKARA". UDALTOP.](#)

[HTTP://WWW.UDALTOP.COM/FITXATEGIAK/DOKUMENTUAK/DOKUMENTAZIOA/GIZARTE-SAREA-ETA-EUSKARA-20.PDF](http://www.udaltop.com/fitxategiak/dokumentuak/dokumentazioa/gizarte-sarea-eta-euskara-20.pdf)

[LUISTXO FERNANDEZ \(2010\), "SARE SOZIALAK ETA EUSKARA, AZALEKO ERRADIOGRAFIA BAT", UDALTOP.](#)

[HTTP://WWW.UDALTOP.COM/FITXATEGIAK/DOKUMENTUAK/DOKUMENTAZIOA/SARE-SOZIALAK-NERABEAK-ETA-EUSKARALUISTXO_FERNANDEZ.PDF](http://www.udaltop.com/fitxategiak/dokumentuak/dokumentazioa/sare-sozialak-nerabeak-eta-euskaraluitxo_fernandez.pdf)

[MANUEL ORTEGA, "LAS HUELLAS DE LA RECENTRALIZACIÓN" HTTP://MANUEL.LASINDIAS.COM/LA-HUELLAS-DE-LAS-RECENTRALIZACION\)](#)

[GORKA JULIO \(2010\), "EUSKARA 2.0: EUSKARA INTERNETEKO SARE SOZIALEN TESUINGURUAN".](#)

[HTTP://TEKETEN.COM/WP-](http://teketen.com/wp-content/uploads/2010/08/Interneteko_sare_sozialak_sare_sozialen_analisi_dinamikotik_begiratuta.pdf)

[CONTENT/UPLOADS/2010/08/INTERNETEKO SARE SOZIALAK SARE SOZIALEN ANALISI DINAMIKOTIK BEGIRATUTA.PDF \)](http://teketen.com/wp-content/uploads/2010/08/Interneteko_sare_sozialak_sare_sozialen_analisi_dinamikotik_begiratuta.pdf)

[IÑAKI MARTINEZ DE LUNA, NEKANE JAUSORO, KONTXESI BERRIO-OTXOA ETA IBON IDIREN "GIZARTE SAREAK ETA HIZKUNTZAREN ERABILERA: EUSKARARI ETA GAZTELANIARI EGOKITUTAKO HURBILKETA".](#)

[HTTP://WWW.SOZIOINGUISTIKA.ORG/EU/NODE/702\)](http://www.soziolinguistika.org/eu/node/702)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA 2011-2012"](#)

[\(HTTP://EU.EUSTAT.ES/ESTADISTICAS/TEMA_133/OPT_0/TI INTERNET ERABILTZEN DUTEN BIZTANLE AK/TEMAS.HTML#AXZZ1Y2S6CYG\)](http://eu.eustat.es/estadisticas/tema_133/opt_0/ti_internet_erabiltzen_duten_biztanleak/temas.html#axzz1y2s6cyg)

[GORKA JULIO \(2010\) "BLOGOSFERA, HEDABIDE BANATU BAT". HTTP://TEKETEN.COM/WP-](#)

[CONTENT/UPLOADS/2009/05/SOCIAL-BLOGWORKS1.PDF](http://teketen.com/wp-content/uploads/2009/05/social-blogworks1.pdf)

[KIKE AMONARRIZ: "XXI. MENDE HASIERARAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK", TXOSTENARI EKARPENAK, 39. ORRI.](#)

[LUISTXO FERNANDEZ \(2010\), "MINORITY LANGUAGES FACING THE INTERNET TSUNAMI".](#)

[HTTP://WWW.CODESYNTAX.COM/EN/BLOG/MINORITY-LANGUAGES-FACING-THE-TWITTER-TSUNAMI](http://www.codesyntax.com/en/blog/minority-languages-facing-the-twitter-tsunami)

[IGOR CALZADA \(2008\), "EUSKARA 2.0". HTTP://WWW.IGORCALZADA.COM/EUSKARA-20](#)

